



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

## **HEZKUNTZA SEXUALA HAUR HEZKUNTZAN.**

**Diagnosia eta formakuntza proposamen bat.**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Goimendiourrutia Gallastegui, Garazi.

ZUZENDARIA: Alvarez Uria, Amaia.

**2020**

## **LABURPENA:**

Gradu Amaierako Lan honek Haur Hezkuntzako haurrek hezkuntza sexuala jasotzearen garrantzia azpimarratzen du, hauen formakuntza integralari begira. Hortaz, lan honen helburu nagusia, Haur Hezkuntzako etapara bideratutako sexu hezkuntzan trebatzea eta gai hau hezkuntza formalean lantzearen garrantzia azpimarratzea da. Izan ere gaur egun oraindik hezkuntza formalean lantzen den hezkuntza sexuala urria eta oso tradizionalista da. Hori dela eta GRAL honetan gaur egun hezkuntza sexuala ikastetxeetan nola jorratzen den ezagutzearekin batera, hezkuntza sexualari buruzko irakasleen formakuntza landu da. Horren aurretik, sexualitatea eta hezkuntza sexualaren inguruko informazioa bildu da, gaia hobeto ulertzeko hainbat kontzeptu definituz. Horretarako, lehenik eta behin, adituek gaiari buruz diotena ezagutu da. Ondoren, egoeraren diagnosia egin da, gaur egun hezkuntza sexuala ikastetxeetan lantzen dabiltzan arituei esker. Azkenik, irakasle talde bati bideratutako formakuntza saioak diseinatu dira.

**HITZ GAKOAK:** Sexualitatea, Hezkuntza sexuala, Haur Hezkuntza, Irakasleen formakuntza.

## AURKIBIDEA

1. JUSTIFIKAZIOA .....	1
2. MARKO TEORIKOA .....	3
2.1. HEZKIDETZA.....	4
2.2. SEXUALITATEA.....	5
2.3. HEZKUNTZA SEXUALA .....	6
2.4. HELDUEN PAPEREA.....	9
3. HELBURUAK.....	10
4. METODOLOGIA .....	10
5. EMAITZAK.....	12
5.1. SEXU HEZITZAILEEN ERANTZUNAK.....	12
5.2. HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAREN ERANTZUNAK.....	20
5.3. LABURPENA .....	22
6. FORMAKUNTZA PROPOSAMENA .....	24
7. HAUSNARKETA, EZTABAIDA ETA ONDORIOAK .....	25
7.1. HAUSNARKETA .....	25
7.2. EZTABAIDA .....	27
7.3. ONDORIOAK .....	28
8. BIBLIOGRAFIA.....	31
9.ERANSKINAK.....	34
I. ERANSKINA: Formakuntza proposamena .....	34
II. ERANSKINA: Elkarrizketak .....	48

## 1. JUSTIFIKAZIOA

Azken aldian, eskoletan hezkidetzak lantzeari garrantzi handia ematen zaio. Hala ere, gaia ez da behar bezala lantzen, hezkidetzaren barruan kokatzen den heziketa sexuala ez delako nahiko eta modu egokian jorratzen, batez ere Haur Hezkuntzan.

Eskola gehienetan, zeharka gauzatzen da sexu-hezkuntza edo gaiarekin zer ikusia duen arazoren bat sortu arte itxaroten da hau lantzeko. Honek gaiari garrantzia kentzea dakar, baina askotariko autoreak aztertu eta gero, berebiziko garrantzia duen gaia dela esango nuke. Hain zuzen ere, ez soilik haurren garapen psiko-emozionalerako, pertsona bezala hazteko, gainontzekoekin harremanak izateko, heldutasun afektiboa lortzeko, edo norberaren identitatea modu askean bilatu eta eraikitzeko ere balio du.

Nahiz eta gaur egun ez den onartzen, bai jendartean eta bai eskoletan zaila da hezkuntza sexualaz edo sexualitateaz hitz egitea edo hau lantzea, oraindik tabu asko daudelako eta erresistentzia handiak agertzen direlako. Tabu eta erresistentzia hauen zergatia, gai honek norbere buruaren hausnarketa eta deseraikuntza pertsonal handia eskatzen duelako izan daiteke.

Beraz, hezkuntza sexuala gai bezala hautatzearen zergatiak, irakasleen formakuntzaren eta ikasgeletan lantzen denaren inguruko interesean datza. Kuriositate hau, Haur Hezkuntza graduak azken praktikaldia burutu nuen eskolan gaia nola jorratzen zuten ikusita sortu zitzaidan. Praktikaldi hau izan zen hezkuntza sexualaren inguruko ezjakintasun orokorra zegoela konturatu nintzen momentua. Honekin batera, Haur Hezkuntzako graduak gaia ez dugula tratatu oharatu nintzen eta horrek kezka handiak sortu zitzaizkidan. Horregatik, gaia arakatzen hasi bezain pronto, are interesgarriagoa iruditu zitzaidan, hezkuntza komunitateak eta irakasleek gutxi landu dutela berretsi nuen, eta nire formaziorako praktikoa zela pentsatu nuen.

Nahiz eta azken aldian komunikabideetan puri-purian dagoen gai bat izan sexu hezkuntza (*Skola*ren inguruko polemika edo 'pin-parentala' har ditzakegu adibide gisa), ia betidanik egon da honen inguruko eztabaida eta tirabira, bai iritzi publikoan eta bai hezkuntza komunitatean ere.

Jakina da, espainiar estatutik inposatzen diguten hezkuntza erreforma bakoitza, indarrean dagoen partidu politikoaren interesen arabera dela. Hau horrela izanik, begirada atzera botatzen badugu eta Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta Bigarren

Hezkuntzan kokatzen bagara, 2006. urtean Jose Luis Rodriguez Zapaterok, garai haietako presidentek PSOE alderdi politikoarekin, "Hiritartasuna" deituriko ikasgaia diseinatu zuten. Ikasgai honek teoriarik, garapen pertsonal libre eta integral bat zuten helburu eta auto-estimua, duintasun pertsonala, askatasuna, erantzukizuna eta irizpide propioa edukitzea eta errespetuz jokatzeko bultzatzen zuten.

Baina hau, espainiar estatuko sektore kontserbadoreari ez zitzaion batere gustatu, zehazki Partidu Popularrari eta Elizari. Gehien kritikatu zutena, hezkuntza sexuala eta ikasgaiak balore tradizionalen inguruko begirada alternatiboa eskaintzen zuela izan zen, helburu laiko eta "adoktrinatuak" zituztela adieraziz. Pentsaera eskuindarra zuten pertsona hauek, gurasoek, gai hauek lantzea edo ez erabakitzeko aukera izan behar zutela defendatzen zuten. Hau ikusirik, Mariano Rajoy Partidu Popularreko presidentea ohiak, José Ignacio Wert hezkuntza ministroarekin batera, 2013an LOMCE hezkuntza erreforma aplikatu eta hiru urtetan zehar tirabirak izan ostean, 2016. urtean "Hiritartasuna" ikasgaia, "Hezkuntza zibikoa eta konstituzionala"rekin ordezkatzea lortu zuten. Berriz ere, hezkuntza sexuala mugatuz eta gaiarekiko desinformazioa sustatuz.

Modu berean, orain dela gutxi, 2018-2019 kurtsoan hain zuzen ere, Nafarroako gobernuak proposatutako *Skolae* programa aplikatu zen Nafarroako hamasei eskolatan. Programa hau martxan jartzea oso korapilatsua izan zen, izugarritzko jazarpen politiko, juridiko eta komunikatiboa izan zuelako. Hainbestekoa izan zen gai honekiko presioa, programa hau sortu zuten hainbat kidek Nafarroako justizia auzitegi nazionalan deklaratu behar izan zutela. Maria Solanak, garai haietako Nafarroako gobernuko hezkuntza kontseilaria zenak, *Skolae* programarekin gertatutakoak atzean arrazoi moral eta erlijiosoak zituela salatzearekin batera, "sorgin ehiza" bezala definitu zuten oro har gizarteak eta zehazki politikariek ezjakintasunetik abiatuta programarekiko izan zuten jarrera. Eta hau dena, ikasleen artean berdintasunaren aldeko eta indarkeria sexistaren aurkako kontzientzia bultzatu nahi duen programa bat aurkezteagatik. Kasu honetan ere arestian aipatutako erresistentzia eta tabuak ikus daitezke.

Begirada gaur egunean kokatzen badugu, 2020ko urtarrilean komunikabideetan Vox partidu politikoko kideek "Veto parental" a edo "Pin parental" a aurkeztu zuten Murtzian, nahiz eta Andaluzia aldean ere zabaldu zen. Honen bitartez, gurasoek haien haurrak generoa, feminismoa, aniztasuna eta sexualitatea bezalako gaiak lantzen dituzten saioetara (joatea ala) ez joatea erabakitzeko eskubidea izan behar dutela pentsatzen dute. Honen aldekoek, ikastetxe publikoetan haurrak "adoktrinatu" egiten dituztela defendatzen dute falazia ugari plazaratuz.

Baina pertsona arkaiko hauen hurrek ere eskubidea dute hezkuntza mota hau jasotzeko. Izan ere, curriculumean txertatua egoteaz gain, Europako hogeit hamar estatutan lantzen diren edukiak dira. Horrez gain, Parlamentu europarrak, Nazio Batuen Erakundeak eta Europar Kontseiluak babestuak dauden edukiak dira.

Funtsean, eskuindarren aldetik hezkuntzari eta aniztasunari eginiko eraso hauek, hezkuntzako profesionalei eta hezkuntza publikoari eragiten diete zuzenean. Hala eta guztiz ere, kasu mediatiko hauek guztiak, gizartearen kontrako erantzuna ere jasotzen dute. Feminismoaren laugarren olatua dela diote batzuek, baina argi dago, gaur egungo testuinguruan feminismoak mobilizatzeko gaitasuna eta gizarte patriarkal honen aurkako aldarriak mahai gaineratzeko gaitasun ikaragarria duela, bai mundu mailan eta baita Euskal Herrian ere. Azkenengo hiru urteetako martxoaren zortziak adibide argiak ditugu, 2019ko grebaren intzidentzia gaitasuna azpimarragarria izanik.

Honez gain, jardunaldi feministetan 2019ko azaroan 3.000 emakume bildu ginen Durangon, Euskal Herriko mugimendu feministak dituen aldarriez hausnartzeko. Aipatzekoa da, Euskal Herriko Mugimendu Feministak proiektu askatzaile baten aldeko hautua egin duela, proiektu erradikal eta kolektibo bat erdigunean jarriz, auto-antolaketaren beharra azpimarratuz.

## **2. MARKO TEORIKOA**

GRAL honetako esku-hartzea Eibarko J. A. Mogel ikastolako Sansaburu ikastetxean burutuko da. Hori dela eta, Eibarri buruzko hainbat datu azalduko dira jarraian. Eibar 27.000 biztanle dituen eta Gipuzkoako mugako aran batean kokaturik dagoen Deba-Barrena eskualdeko hiririk handiena da.

Bertan, Haur Hezkuntza etapara bideratutako hainbat ikastetxe daude, 11 zehazki; C.P.E.I.P.S. STA. Maria de la Providencia HLBHIP –Aldatze, C.P.E.I.P. La Salle - Isasi HLHIP, C.E.I.P. Amaña HLHI, C.E.I.P. San Andres HLHI, C.E.I.P. Urkizu HLHI, C.E.I.P. Arrateko Andra Mari HLHI, E.I.C. Eibarko Haurreskola Orbea PHE, E.I.C. Eibarko Haurreskola Arrateko Andra Maria PHE, E.I.C. Eibarko Haurreskola Amala PHE, J. A. Mogel Ikastola (Argatxa) eta J.A. Mogel Ikastola (Sansaburu).

J. A. Mogel ikastolak, hiru eraikin ditu, Haur hezkuntzako bi, Sansaburu eta Argatxa eta Lehen Hezkuntzara bideratutako bakarra, Iturburu.

Sansaburu ikastetxeak, bi urteko gelatik hasita, bost urteko gelarainoko eskaintza du. Adin bakoitzeko bi gela egoteaz gain, ratioak topera daude, gaur egun ikastola honek

jasotzen duen eskaria handia delako. Honekin batera, aipatu beharra dago, ikastola publikoa dela eta bertan hamar irakaslek egiten dutela lan.

Argatxako eraikina aldiz, txikiagoa da. Bi urtetik bost urtera arteko eskaintza duen arren, maila bakoitzeko gela bakarra dago bertan. Hortaz, Argatxan lan egiten duen irakasle kopurua txikiagoa da, zehazki han 6 irakaslek egiten dute lan.

## 2.1. HEZKIDETZA

Indarrean dagoen Heziberri 2020 Haur Hezkuntzako curriculumaz aztertuz, proposatutako xedeen artean, honako hau aurki daiteke: Pertsonaren garapen integrala, maila guztietan: garapen fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala, kulturala, morala, afektiboa nahiz emozionala, estetikoa eta espirituala (Heziberri, 2020). Hezkidetzari buruz ordea, Eusko Jaurlaritzak honako hau esaten du: “Esparru arauemailedan ezarritakoa bermatzeko ekimen integrala behar da oinarritzko hezkuntzan, ulertuta hezkidetzaren elementu positiboa dela mutilentzat zein nesKentzat, berdintasuneko hezkuntzaren garapena eta, aldi berean, genero-indarkeriaren prebentzioa bermatzen baititu” (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Hezkuntza Saila, 2019: 30).

Ez da erraza haurrak hezkidetzan heztea, egunean zehar iragarki, telebista, film, bideo-joko, kantu, sare sozial, ipuin eta abarren bitartez hainbeste mezu sexista jasotzen diren bitartean. Modu berean, ezjakintasun handia dago gai hau jorratzearen inguruan. Hala eta guztiz ere, horrek ez du mugatu behar honen ikaskuntza (*Skolae*, 2019).

EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren planean, hezkidetzaren “neska eta mutilen arteko berdintasuna modu espezifikoan eta aldi berean zeharkako ardatz gisa txertatzea bereizgarri duen hezkuntza gisa” definitzen da (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Hezkuntza Saila, 2019: 30).

Hezkidetzaren, “proposamen pedagogiko feminista da, hezkuntza sistema osatzen duten eremu guztietan, neska eta mutilen arteko desberdintasunei aurre egiteko eskuhartzeak ahalbidetzen dituena. Halaber, hezkidetzaren ez da kontzeptu estatiko bat, dinamikoa eta malgua baizik, eta tokian-tokiko errealitateara egokitzeko premisa dauka” (Castilla, 2008 in León et al., 2018: 210).

Hortaz, “Ez da ulertu behar hezkidetzaren neskak eredu maskulinora parekatzea denik, horrela androzentrismoan eroriko baikinake eta ez baikenioke egoki helduko

hezkuntza-eredu ez-sexista eratzeko eginkizunari. Hezkidetzak esan nahi du hezkuntza-eredua kutsatzen duen sexismoa sakonki berrikustea eta, azkenik, aldaketarako erremintak eta tresnak abian jartzea” (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Hezkuntza Saila, 2019: 31).

Hezkidetzaren xedea honela definitzen da: “etiketarik gabeko mundua eraikitzea, non emakumeak eta gizonak maila berean egongo diren, beren eskubide eta askatasunekin” (Barquín, 2016 in EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren plana 2019: 27). Horregatik, ez da egon behar generoen arteko segregaziorik. Izan ere, edozein hezkuntza praktika hezkidetzan oinarritu behar da (Furlani, 2011).

Hortaz, hezkidetzaren ez da izan behar ikasgai edo atal bereiztu bat, hezkidetzaren, curriculumaren lantzeko beste modu bat da, funtsezkoa baita haurrek garapen integrala lor dezaten. Hau da, egoera eta momentu oro landu behar den zerbait da (Fernandez, 2009). *Skolae* programak, lau ikaskuntza garrantzitsu proposatzen ditu parekidetasunean bizitzeko eta horietako bat sexualitatea eta tratu ona dira (*Skolae*, 2019). EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzaren planean ere, hezkidetzaren zutabeetako bat Haur Hezkuntzan berdintasunezko hezkuntza afektibo sexuala da (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Hezkuntza Saila, 2019).

## 2.2. SEXUALITATEA

Munduko Osasun Erakundearen aburuz, sexualitatea, gizakiaren alderdi nagusi bat da. Honek, sexua, identitate desberdinak, genero rola, orientazio sexuala, erotismoa, plazera, intimitatea eta ugalketa barnebiltzen ditu. Horrez gain, sentimendu, fantasia, desira, pentsaera, jarrera, balore, praktika, rol eta harremanen bitartez bizi eta adierazten da (Munduko Osasun Erakundea, 2018). Hau dela eta, sexualitatea ezin da ikuspuntu biologiko edo mediku soil batetik ulertu, honen alderdi sozial eta pertsonalari erreferentziarik egin gabe (*Skolae*, 2019).

Giza sexualitatea energia indartsu eta mugiarazlea da; gizakiaren harremanak adierazteko modua, bai norberaren buruarekin, zein besteekin (Faccioli eta Ribeiro, 2003). Izan ere, “Sexualitatea harreman mota anitzetan dagoen elementua da, plazerarekin lotura duena, askotan gure motorra dena, desioak, motibazioak eta interesak bideratzen baititu” (Bilgune feminista, 2011). Gizakiaren gainontzeko ezaugarriak bezala, etengabeko transformazio prozesuan dago eta etengabeko mugimendu horretan eman behar zaio zentzua kontzeptu honi (Faccioli eta Ribeiro, 2003).



Gizakia jaiotzen den momentutik izaki sexuatu da eta bizi osoan zehar izango da. Hau dela eta, izaki sexuatu bezala onartu, horrela bizi eta adieraziko dela jakin behar da (CEAPA, 2010). Horregatik kontuan izan behar da, sexualitatea, bizitza osoko etapa guztietan zehar presente egongo dela, adierazpen mekanismoak aurkeztuz, esanahi sozial eta bizipen pertsonalen arabera (Furlani, 2011).

Hala eta guztiz ere kontuan izan behar da gauza berak, etapa edo momentuaren arabera, esanahi desberdina duela. Adibidez, genitalak estimulatzea bezalako jarrerak bizitzako etapa desberdinetan ager daitezke. Baina etapa bakoitzean, esanahi desberdina izango du (CEAPA, 2010).

Haur taldea informazio iturri da, sexualitateari buruz libre, natural eta espontaneoki egiten dute haurrek berba, gehienetan gizartearen eta helduen zentsura gaindituz (Faccioli eta Ribeiro, 2003). Haur Hezkuntzan desira sexual eta sentimendu afektiboen arteko desberdintasuna ez da erabat argia. Egokiagoa litzateke dimentsio sexual, afektibo eta sozial batez hitz egitea, soilik dimentsio sexual batez baino. Izan ere, haurrek ez dute zer den sexuala eta ez-sexuala desberdintzen. Hortaz, haur sexualitatea asko urruntzen da ugalketa kontzeptu soil batetik. Hau horrela izanik, ez da ahaztu behar, haurrek plazera sentitzeko eta gustura edo deseroso dauden jakiteko gaitasuna dutela, nahiz eta oraindik ez dioten esanahi erotikorik esleitzen sentsazio hauei (CEAPA, 2010). Horregatik, bi eta sei urte bitartean, haurrek ugalketaren inguruko kuriositatea erakusten dute, harremanez hitz egiten dute, joko sexualetan hartzen dute parte eta sexuaren inguruko informazioa elkarrekin banatzen dute (Faccioli eta Ribeiro, 2003). Hau dena ikusita, esan daiteke haurrekin sexualitateaz hitz egiterakoan hitz gakoa naturaltasuna izan behar dela (CEAPA, 2010).

Bakoitzak modu asko ditu sexualitatea adierazteko eta bizitzeko (CEAPA, 2010). Horregatik, 'Sexualitatea' kontzeptua baino 'sexualitateak' kontzeptua erabiltzea egokiagoa iruditzen zaigu, adieraren aniztasun hori agerian utzi eta ikuspegi zurrunagoak ekiditeko" (Bilgune Feminista, 2011:6).

### **2.3. HEZKUNTZA SEXUALA**

Amaia Vazquezen hitzetan, "komunikazio eredu baten barruan sartuko genuke sexu hezkuntza, eta ez osasunaren barruan edo informazio hutsean soilik. Gizakion sexualitatea animalienetik bereizten bada, senetik urrundu eta harreman eta afektuen munduan sartzen delako da. Horrek komunikaziora eramaten gaitu, eta horrek bizipenak lantzer" (Vazquez, 1998).

Hezkuntza sexuala beharrezkoa da haurren formakuntza integralari begira. Hau da, sexua, generoa, sexualitatea, arraza, etnia, klase soziala, jatorria, nazionalitatea, edo erlijioa esaterako, jaiotzetik haurren interakzio soziala zehazten duten identitate kulturalak dira. Modu honetan, haurren lehenengo urteetatik hasi behar da hau lantzen. Izan ere, askotan nerabezaroan hasten da lanketa eta hau ez da egokia izaten, sexualitatea, ugalketa edo sexu prebentzioa baino gehiago delako (Furlani, 2011). Hau kontuan izanda, jakina da, hezkuntza sexuala haurtzarotik landu ezean berandu hastea dela. Ez da beharrezkoa galdera edo egoera konkretuei itxoitea, lehenago hasi behar da lantzen (CEAPA, 2010).

Hezkuntza sexual egoki batek ongizate fisiko, psikologiko eta sozio-kulturala lortzea dakar. Zentzu honetan, sexualitatea pertsona sexuatu bezala bizi, ikusi eta sentitzeko aukera dute ikasleek, sena alde batera utzita eta dimentsio soziala kontuan izanda. Hala, gaur egun hezkuntza-sexuala lantzeak, gai askoren inguruan hitz egitera eramate gaitu (*Skolae*, 2019).

Hortaz, azpimarratzekoa da, “sexu hezkuntza, ez dela informazio sexuala ematea soilik. Informazio sexuala bi ordutan eman daitekeen zerbait da, eta sexu hezkuntza ez” (Vazquez, 1998). Hortaz gain, kalitatezko hezkuntza sexual unibertsala jasotzea gizarte demokratiko batean ez da egon behar mito edo sinesmen erlijiosoak baldintzatua. Ezta pentsaera patriarkal batek ere, non emakumeak diren diskriminatuak eta eredu maskulino eta femeninoak estereotipatzeaz gain, parekidetasunean oinarritutako baloreak eta aniztasun sexuala oztopatzen den. Zentzu horretan, hezkuntza sexual integral batek, plazeraren irudi positibo bat helarazi behar du, erotismoaren ikuspegi errudun eta soilik ugalketara bideratzen duena ekidinez (Malo, 2012).

Emakundek sortutako EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza-planean azaltzen den bezala: “hezkuntza sexualak, osasun eta garapen pertsonal gisa, helburu du pertsonalki haztea eta sexuarekiko jarrera baikor eta arduratsua izatea; hartara, arduraz jokatzeko laguntzen du, ez norberarekin soilik, inguruan duen testuinguru sozialeko beste pertsonekin ere” (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Hezkuntza Saila, 2019: 37). Horregatik, haurrek beren burua ezagutu, onartu eta hauek zoriontsu izateko beren erotika modu desberdinetan adieraz dezaten ikastera dago zuzenduta. Izan ere, hezkuntza sexualaren helburu nagusia ez da haurdunaldien prebentzioa edo sexu bidez transmititutako gaixotasunak ekiditea (CEAPA, 2010).

Gaur egun ere eskolan, sexualitatea lantzeak ez du ia lekurik eta lantzen den urria biologia ikuspuntu soil batetik lantzen da. Hau ikusirik, kritikarik handiena zera da, gaur egungo curriculum mugatua eta erredukzionista dela (Furlani, 2011). Aitzitik, hezkuntza sexuala eskubide bat bezala ulertu behar da. Horregatik, beharrezkoa da, curriculumean txertatzea, curriculum on baten beharrezko zati gisa ulertuz (Malo, 2012).

Izan ere, gaur egun heziketa sexualari buruz hitz egiteak nolabaiteko erresistentzia dakar, ez bakarrik familia eta eskolaren partetik, gizarte osoaren partetik ere (Furlani, 2011). Baliteke hau, honi buruzko kontzeptu oker edo murriztaile bategatik izatea, oso diskurtso tradizionalista dagoelako hezkuntza sexualaren inguruan. Horregatik, gaur egun interneta da gazteen inspirazioa, pornografia euren hezkuntza sexuala izanik. Zentzu honetan, internetari ateak ixtea ezinezkoa den honetan, garrantzitsua da haurrek hezkuntza sexuala jasotzea, internet bidezko sexu hezkuntza txikienean bizitzetara heldu aurretik (Skolae, 2019).

Gainera, mundu osoan egindako ikerketek, argi azaltzen dute, hezkuntza sexuala txikitatik lantzeak inoiz ez edo gutxitan dakarrela jarduera sexual goiztiarra. Are gehiago, lantzeak praktika hau arduratsua egiten du (Unesco, 2018). Hau honela izanda, azpimarratzekoa da, paradigma politiko zein pedagogikoa edozein izanda ere, beharrezkoa, begi bistakoa eta koherentea dela hezkuntza sexuala curriculumean txertatzea, eskoletan haurren garapen integrala eta inklusioa eman daitezen. Beraz, hezkuntza sexuala eskaintzen ez duten eskolek, partzialki hezten dituzte beren ikasleak (Furlani, 2011). Hau da, haurrak osasuntsu haztea nahi bada, beren alderdi guztiak hartu behar dira kontuan eta sexualitatea ez da gutxiago izan behar (CEAPA, 2010).

Horrez gain, hezkuntza sexuala lantzean, errespetua, tolerantzia, parekidetasuna, enpatia eta elkarrekotasuna bezalako baloreak lantzen dira, zeintzuk lotura estua duten unibertsalki onartuak dauden giza eskubideekin. Hortaz, sexualitateaz hitz egitea ezinezkoa da balore hauek kontuan izan gabe (Unesco, 2018). Hezteko modu honek, diskriminazio soziala murriztu, bakea bilatu eta eskklusioa ekiditeko modu desberdinak lantzen ditu (Furlani, 2011).

Hau ikusirik, eraginkorragoa da lortu nahi den horretatik hastea lantzen, soilik ekiditea nahi den horretatik baino. Beraz, hobea da hezkuntza sexuala positibismotik lantzea ikuspegi negatibo batetik baino (CEAPA, 2010). Izan ere, "balioen arabera, konpetentzia eta jarrera batzuk eta beste batzuk bultzatzen dira. Adibidez, sexualitatea

errespetua, desira, plazera eta samurtasunarekin lotuz gero garapen bat izango du eta indarkeria, jabetza edota mina bezalako balioekin lotuko bagenu beste kompetentzia batzuk garatuko lirateke” (Bilgune feminista, 2011). Horregatik, Sexualitateaz hitz egiterakoan, gauza politez hitz egin behar da eta ez da sekreturik egon behar (de la Cruz eta de la Cruz, 2011). Hau horrela izanik, esan daiteke, ez dela aitzakiarik existitzen, haurrei kalitatezko hezkuntza sexual integral bat ez eskaintzeko. Hau baita, bizi duin eta osasuntsua izateko behar dutena (Malo, 2012).

Laburbilduz, Hezkuntza sexual osasuntsu bat aurrera eramaten duten eskolek, sexualitateari buruz eztabaidatu eta hitz egin behar dute bai ikasle, guraso zein irakasleekin. Hortaz gain, hezkuntza sexuala curriculumean presente egotea beharrezkoa izateaz gain, urte guztian zehar landu behar den gai bat da eta ez kasu bereziren bat sortutakoan bakarrik. Beraz, sexualitatea eskola esparruan eztabaida, bizipen pertsonal eta saio teoriko-praktikoetan oinarritu behar da (Skolae, 2019). Horrez gain, eskolan hezkuntza sexuala lantzeak, ikasleen pentsamendu kritikoa sustatu behar du, giza sexualitatea eta pertsonen arteko harremanak adierazteko era desberdinei dagokionez (Malo, 2012).

## 2.4. HELDUEN PAPEREA

Eskola kulturean eta gizartean onartuak dauden jarrerak transmititzeko instituzio garrantzitsua da, baina zenbait jarrera eta kontzeptu zalantzan jartzeko espazioa ere bihur daiteke. Hortaz garrantzitsua da sexualitateari buruz hitz egin eta eztabaidatzea (Faccioli eta Ribeiro, 2003). Modu honetan, haurrak sexualitateaz hitz egin eta entzuten badute, gai honi buruz berba egin dezaketela ikasiko dute eta pixkanaka ideiak lotzen hasiko dira, sexualitate hitzari esanahia emanez (CEAPA, 2010).

Ikastetxeetan hezkuntza sexuala lantzeko beharrezkoa da kontuan izatea hurrek identitate sexuala eta harreman sozialak eraikitzeko guraso eta familiek duten ezinbesteko funtzioa (Unesco, 2018). Hau da, “Hezkuntza sexuala eraginkorragoa da familiekin koordinatuta jorratzen denean, hots, etxean eta ikastetxean ahaleginak batu eta berdintasunean, osasunean, gozamenean eta pertsona guztiekiko eta gizatasunak berezkoa duen aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako hezkuntza sexuala eskaintzen denean” (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Hezkuntza Saila, 2019: 37). Horretarako, “eskolak eta gurasoek elkarren arteko komunikazio harremana eduki behar dute haurrengana mezu bateratuak irits daitezen” (Vazquez, 1998).

Honekin lotuta, kontuan hartu behar da, ikasgeletan hezkuntza sexuala lantzeko, beharrezkoa dela irakasleak honetan formatuak egotea. Hau da, gaiari buruzko gaitasun espezifikoak landu beharko dituzte hurrei sexualitatea modu argian azaltzeko. Horrez gain, ikaskuntza metodo aktibo eta parte hartzaileak proposatzea oso garrantzitsua da (Unesco, 2018). Hau da, gaia lantzeko erronka berriak eta errekurtsio berritzaile, erakargarri eta eraginkorrak bilatu behar dira (*Skolae*, 2019).

### 3. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honetan aurkezten den helburu nagusia, Haur Hezkuntzako etapara bideratutako sexu hezkuntzan trebatzea eta gai hau hezkuntza formalean lantzearen garrantzia azpimarratzea da.

Era berean, honako helburu espezifiko hauek landuko dira:

- Hezkuntza sexualaren inguruko jakintzak eskuratzea Haur Hezkuntza etapari begira.
- Irakasleekin batera sexualitateaz eta hezkuntza sexualaren inguruan hausnartzea.
- Irakasleen formakuntzan hezkuntza sexualaren garrantzia ezagutzea.
- Gaur egun praktikan hezkuntza sexuala nola jorratzen den ezagutzea.
- Sexualitatea eta hezkuntza sexualaren inguruko informazioa biltzea, gai honen inguruan dagoen desinformazioarekin apurtzeko.

### 4. METODOLOGIA

Hasteko, lehenengo pausoa, sexualitate elkarte eta zentro desberdinetako kideei eta irakasle bati elkarrizketak egitea izan zen eta horretarako, galdetegi batez baliatu nintzen, informazioa bildu eta ni formatzeko asmoz. Honekin, gaur egungo gaiarekiko egoera ezagutu eta elkarte eta zentro hauek nola lan egiten duten jakin nahi izan dut. Horretarako, Emaize, Arremanitz, Guztiok, Aldarte eta Urtxintxako zenbait kide elkarrizketatu ditut. Horrez gain, Mogel Ikastolako Simone Beristaini -bost urteko gela bateko tutoreari- ere egin diot elkarrizketa. Irakasle hau, nire praktikaldiko tutorea izan zen eta konfiantza handia dut berarengan. Horrez gain esan beharra daukat, Gradu Amaierako Lan hau egiten hasi nintzenetik gaiarekiko interesa erakutsi eta honen jarraipena egin duen irakasle bakarra izan dela, prozesua nola doan galdetuz. Hortaz, elkarrizketa egiteko pertsona egokia dela iruditu zitzaidan.

Bigarrenez, nire esku-hartzea gauzatzeko, ikaskuntza-zerbitzua filosofia edo metodoa erabili dut. Hori dela eta, aipatzeko da, ikaskuntza-zerbitzua, irakaskuntza-ikaskuntza ikuspegi edo metodo berritzaile bat dela. Honek, gizarteari eskainitako zerbitzuak barnebiltzen ditu eta ikaskuntza-zerbitzuaren helburua gizartea aldatzeko gai diren hiritar konpetenteak sortzean datza (Aranburuzabala, Cerrillo eta Tello, 2015).

Metodo hau gehiago definitze aldera, Puigen (2011) aburuz, egoki egituratutako proiektu bakar batean ikaskuntza-prozesuak eta komunitateari zerbitzua emateko nahia barnebiltzen dituen hezkuntza jardura moduan ulertu behar da. Horrez gain, proiektu horretan parte-hartzen duten pertsonen, ingurunearen benetako premiei begira lan egiten dute, premia hauek asetzeko eta ingurunea hobetzeko helburuekin.

Ildo berean *Zerbikas* fundazioak honako hau adierazten du, ikaskuntza-zerbitzuarekin lantzen diren edukiak, modu praktikoa batez lantzea errazten duen pedagogia bat dela. Eta ez hori bakarrik, gizarte-bazterketa gutxitzeko eta kasu hauetaz ohartzeko metodologia oso eraginkorra dela defendatzen du (Mendia eta Moreno, 2010).

Horrez gain, Puigek (2009) ikaskuntza-zerbitzuak hiru norabide desberdin dituela defendatzen du; kooperazioa, elkartasuna eta erantzukizun zibikoa. Baina, metodo hau, baloreak transmititu eta jasotzeko ezin hobea dela adierazten du, praktikaren bitartez noski. Tapiak (2016) aldiz, hezkuntza zerbitzuak hiru ezaugarri dituela dio: parte hartze aktiboa, zerbitzu solidarioa eta landutako edukiak Curriculumarekin bat egin behar dutela.

Hitz gutxitan esateko, Puigen (2009) aburuz, ikaskuntza eta zerbitzua harreman zirkular batez daude lotuak, non bi aldeek jasotzen duten onura: alde batetik, ikaskuntzak egitura zibikoa hartzen du eta beste aldetik, zerbitzua balio eta jakintzen saio bihurtzen da.

Behin tresna hau definituta, Rubiok (2007) zerbitzu mota honek bost alderdi komun eduki behar dituela adierazten du; ikaskuntza, zerbitzua, proiektua, parte-hartzea eta hausnarketa. Hau kontuan izanda, nire ikaskuntza-zerbitzuak hiru fase edukiko dituela zehaztu nuen (arestian aipatutako bost alderdiak barnebilduz): diagnosia, zerbitzua eta hausnarketa.

Ikaskuntza-zerbitzu hau burutzeko lehenengo pausoa, Mogel ikastolako irakasleekin hitz egitea izan zen. Hauei, ikaskuntza-zerbitzuaren nondik norakoak azaldu eta bertan parte-hartzea nahi zuten galdetu nien. Ideia asko gustatu zitzaizenez, irakasle taldea ezagututa, euren ezaugarrietara egokitutako saioak prestatu nituen. Jarraian, datak

adostu eta formakuntza saioak diseinatzeari ekin nion. Horretarako, dinamika eta material mota desberdinez baliatu nintzen; eztabaidak, talde txikietan hausnartzea, bideoak, artikulua edo jokoak, besteak beste. Baina mundu mailan Covid-19 birusak eragindako egoera dela medio ezin izan ditugu formakuntza saioak aurrera eraman. Hala eta guztiz ere, egoera normaltasunera bueltatu bezain laster burutuko ditugu formakuntza saio hauek eta ikaskuntza-zerbitzuari bukaera emango diogu.

Bukatzeko, egia da askotan, ikaskuntza-zerbitzua marko teorikoan sartzen dela jarduteko filosofia bezala ulertuz. Nik aldiz, nahiz eta ikaskuntza-zerbitzuak zer egin behar dudan azaltzen duen, uste dut nola egingo dudan galderari hobeki erantzuten diola. Izan ere, burutu ditudan hiru faseak lana nola burutu dudan guztiz baldintzatu dute.

## **5. EMAITZAK**

Jarraian elkarrizketatutako adituen erantzunetan jasotako informazioa agertuko da. Hots, Emaize sexologia zentruko Ana Ramírez de Ocariz, Aldarte elkarteko Gaizka Villar, Bizkaiko Urtxintxa eskolako Irati Gaztelurrutia, Arremanitz zentroko Nerea Sancho eta Guztioek elkarteko Borja Muñoz izan dira elkarrizketatutako adituak. Hortaz gain, gaur egun Haur Hezkuntzako etapan lanean dabilen irakasle bat ere elkarrizketatu da, Simone Beristain, ikasgeletan irakasleek bizi dutenaren berri zuzenean izateko.

### **5.1. SEXU HEZITZAILEEN ERANTZUNAK**

#### **5.1.1. ZER DA SEXUALITATEA**

Sexualitatea ulertzeko modu anitzak daude. Izan ere, marko teorikoan ikusi bezala eta elkarrizketatutako bi adituk adierazten duten moduan, etengabeko eraldaketa eta eraikuntza prozesua da sexualitatea. Hau da, ez da finkoa, ikasten eta bizitzen dugunarekin aldatu egin daitekeelako. Beraz prozesu amaigabea dela esan daiteke. Sexualitatea era askean ulertu behar dugula ere aipatzen dute aditu hauek eta “sexualitate” hitza osatzen duen “litate” horrek ezaugarri bat dela ere aipatzen du Guztiokeko adituak, horrekin pertsona beste sexualitate daudela jakinarazten da.

Horrez gain, norberak nahieran eratu dezakeen kontzeptua da. Hortaz, sexualitatea, gorputza bizitzeko, gainontzekoekin harremanetan sartzeko, identitatea eraikitzeke, desioen orientabidea bizitzeko, pertsona sexudun moduan definitzeko, plazera sentitzeko eta funtsean mundua modu batera edo bestera ulertzeko bizipen multzoa dela esan daiteke.

Nahiz eta Arremanitzeko adituak soilik aipatzen duen, garrantzitsua da azpimarratzea, sexualitatea landu egin behar den kontzeptua dela. Izan ere, ez zaio espontaneitateari lekurik utzi behar, sexualitatearekin zer ikusia duten egoera desberdinen aurrean desegoki jokatuz gero, mezu desegokiak helarazi edo jaso daitezkeelako. Horrez gain, aditu honek sexualitatearen ezaugarrietako bat azpimarratu du: ez dagoela ezer ere “normala” dena. Batez ere, ez delako normaltasuna existitzen eta normaltasun hau irudikatu eta erreproduzitu nahian gure burua mugatu eta erreprimatu egiten dugula dio.

Hau dena ikusirik elkarrizketatutako adituek esandakoa aztertuz, sexualitatea aldakorra, dinamikoa, prozesu amaigabe bat bezala uler daiteke. Adin bakoitzean, esanahi eta zentzu bat izango du. Horren bidez, izaki sexudunak garen momentuan gure burua nola eraikitzen dugun definitzen dugu eta horrekin batera zer sentimendu eta pentsaera sortzen zaizkigun. Era berean, nola bizi ditugun pentsaera, bizipen eta sentimendu hauek guztiak eta horren ondorioz nola sortzen ditugun harremanak gure buruarekin eta gainontzekoekin.

### **5.1.2. HEZKUNTZA SEXUALAREN LANKETA GAUR EGUN**

Aztertutako aditu guztiek, oro har hezkuntza sexuala lantzen dela uste dute, nahiz eta lantzen dena ez den nahikoa esan. Denek hezkuntza formalari egiten diote erreferentzia hezkuntza sexualaz hitz egiterako orduan, baina hezkuntza formala ez da gaia lantzen den esparru bakarra. Hau da, bi zentro edo elkartek norbanako, familia edo profesional desberdinekin lan egiten dutela adierazten dute. Hauetako batek, adin desberdineko pertsonekin lantzen dutela aipatzen du; nagusi, heldu, gazte eta haurrekin. Beste hiruk, aisialdi libreko begiraleekin ere gaia lantzen dutela aipatzen dute, hau da, hezkuntza ez-formalean. Nahiz eta soilik bi adituk aipatzen duten, oraindik hezkuntza sexuala tabu askorekin lantzen da.

Hau dena ikusirik, hezkuntza sexuala hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean lantzen dela esan daiteke. Hala eta guztiz ere gaia gehiago landu beharko litzatekeela ikus daiteke.

### **5.1.3. HEZKUNTZA SEXUALA HEZKUNTZA ARAUTUAN**

Ikastetxeetan hezkuntza sexualaren lanketa urria dela defendatzen dute aditu guztiek. Horrez gain, nahiz eta indarrean dagoen Heziberri 2020 curriculumean txertatua dagoen gaiaren lanketa, kasu askotan gaia jorratzea ez dela bermatzen adierazten dute bostetik lau adituk. Batez ere, hezkuntza sexuala lantzea irakasle edo ikastetxeen esku dagoelako. Hau horrela izanik, Urtxintxako eta Arremanitzeko adituek ondo azaltzen duten moduan, askotan ikuspuntu biologiko soil batetik lantzen da hezkuntza



sexuala. Hau da, ikuspuntu oso tradizionalista batetik. Hori dela eta, elkarrizketatutako lau adituk, curriculumean gaia hobeto txertatua egon beharko litzatekeela eta hezkuntza sexuala urte osoan zehar landu beharko litzatekeela ulertzen dute.

Arestian esan bezala, hezkuntza sexuala lantzea edo ez ikastetxe edo irakasleen erabaki pertsonala da. Hau horrela izanik, bost sexologia elkarte eta zentroek ikastetxeetatik jasotzen duten eskaeraren araberrako saioak eskaintzen dituzte. Horretaz gain, Emaize sexologia zentroko adituak azaldu bezala garrantzitsua da aipatzea askotan eskaera hau arazo edo egoera berezi bat sortutakoan jasotzen dela. Honek, gaia oinarririk gabe jorratzea dakar eta ondorioz gaiaren lanketa urria burutzea.

Bukatzeko, Emaize, Guztiok eta Urtxintxako adituek hezkuntza sexuala hezkuntza komunitate osoarekin lantzeko beharra defendatzen dute, ez soilik haurrekin. Hori dela eta, guraso eta familiekin lanketa bat egitearen beharra azpimarratzen dute.

Laburbilduz, hezkuntza sexuala lantzea ikastetxeen eta irakasleen esku dagoenez batzuetan ikuspuntu tradizional batetik lantzen da eta beste batzuetan ez da lantzen edo ez da behar beste lantzen. Honi erantzuteko, beharrezkoa da curriculumean ganoraz txertatzea eta formakuntza hau ikas komunitate osora zabaltzea.

#### **5.1.4 HEZKUNTZA SEXUALA HEZKUNTZA ARAUTUKO ZEIN ETAPATAN**

Argi ikus daiteke aditu guztiek orokorrean Derrigorrezko Bigarren Zikloan eta Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan esku-hartzen dutela. Hala eta guztiz ere, Emaizekoak Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan ere aritzen dira lanean. Horrez gain, elkarrizketatutako bi elkartek Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ere jorratzen dute gaia.

Haur Hezkuntza etapara begira, bostetik hiru adituk argi nabarmendu dute Haur Hezkuntzako etapatik hezkuntza sexuala lantzen hasteko beharra. Horietako bik, Emaizeko eta Arremanitzeko adituek, Haur Hezkuntzan lantzen dela defendatzen dute; txokoen bidez, gorputzeko atalak, familia motak, jatorria edo zentzumenak lantzean esaterako. Hauek nahiz eta gaia lantzen dela uste duten, irakasleak hezkuntza sexuala lantzen ari diren kontzientzia ez dutela uste dute. Aldarteko adituak eta Guztiokekoak aldiz, Haur Hezkuntzan lantzen ez dela adierazten dute. Baina aldi berean, honen garrantzia ere azpimarratzen dute, haurrek aske esperimintatu behar dutela adieraziz.

Hortaz gain, Urtxintxakoak izan dira Haur Hezkuntzako ikastetxe batetik eskaera jaso duten bakarrak. Honekin batera, haurrentzat saioak prestatzean kontraesan asko

aurkitu dituztela aipatzen dute. Izan ere, beraiei hurrei taburik gabe hitz egitea gustatuko litzaiekeen arren, erresistentzia ugari aurkitu izan dituzte esku-hartzen duten eskola askotan. Hala eta guztiz ere, hurrekin hezkuntza sexualaz hitz egiterakoan naturaltasuna behar dela defendatzen dute.

Hitz gutxitan, oro har Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara eta Lehen Hezkuntzako azken ziklora bideratzen da hezkuntza sexuala. Hala eta guztiz ere, Haur Hezkuntzako etapan inkontzienteki lantzen den gaia dela esan daiteke, ez delako hezkuntza sexual bezala identifikatzen. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako etapara bideratutako hezkuntza sexuala definitzeko beharra dago, gai hau modu kontzientean lantze aldera.

#### **5.1.5. HEZKUNTZA SEXUALA HEZKUNTZA ARAUTUAN NOLA ETA NOIZ**

Argi dago aditu guztiek aurretik prestatuak dituztela hainbat material hezkuntza sexuala ikasleekin lantzeko. Hala eta guztiz ere, ikastetxeek eskatutakoaren arabera lan egiten dutela adierazten dute. Hortaz, ikastetxeek beharra edo nahia sentitzen dutenean kontaktatzen dute aditu hauekin. Horrez gain, curriculumak zehazten du zer eduki landu behar den etapa eta adin bakoitzean, baina taldearen beharrak ezagututa, aditu hauek euren saioak birplanteatu egiten dituzte, behar hauei erantzuteko. Era berean, ikastetxeak dira lanketa honen iraupena zehazten dutenak. Elkarrizketatutako hiru adituk azaldu bezala, saio hauek normalean lau, sei edo zortzi orduko iraupena izaten dute.

Arremanitz eta Emaizeko adituek azaldu bezala, hezkuntza sexuala lantzeko, dinamika, joko, bideo eta eztabaida taldeak erabiltzen dituzte beste baliabide batzuen artean. Horrez gain irakasleak aditu hauek gabe ikasgeletan hezkuntza sexuala lantzeko duten material bakarra, testu liburuak dira. Eta arestian esan bezala, ikuspuntu biologiko eta tradizionalista du material honek.

Hau dena ikusirik, esan daiteke, ikastetxeek zehazten dutela noiz landu eta adituek taldea ezagutuz eta hauen beharrak identifikatuz erabakitzen dutela nola landu hezkuntza sexuala.

#### **5.1.6. HEZKUNTZA SEXUALA ZEIN HELBURUREKIN**

Hezkuntza sexualak izan behar duen helburuaren inguruko askotariko iritziak daudela ikus daiteke.

Alde batetik, Emaizeko adituak eta Guztiokekoak, norbere burua ezagutzea, onartzea eta, behin hau lortuta, modu positiboan adieraztea eta gainontzekoekin harremanetan sartzea dela uste dute.

Beste alde batetik, Aldartekoak eta Urtxintxakoak, hezkuntza sexuala lantzeak kritikotasuna eta autonomia sustatu behar dituela pentsatzen dute. Honekin, erabakiak hartzeko askatasun handiagoa izatea eta sexualitatea modu askeagoan bizitzea lortzen dela defendatzen dute aditu hauek.

Bi iritzi hauez gain, Arremanitzeko adituak hezkuntza sexualak ikastetxean aurki daitezkeen egoera deserosoak ebaztea duela helburu adierazten du. Horrez gain, helburu ofiziala, curriculumean zehazten diren helburuak betetzea dela dio. Honekin lotuta, Guztiokekoak etapa bakoitzak eduki eta helburu konkretuak dituela zehazten du eta ikastetxeetan egiten den esku-hartzea honen arabera izan behar dela esaten du.

Horrez guztiaz gain, Aldarteko eta Urtxintxako adituek, Haur Hezkuntzako etapan sakontzen dute gaia. Eta etapa honetan, errespetua, gorputzaren ezagutza, plazeraren bizipena eta mugak errespetatzen jakiten ikastea dela garrantzitsuena adierazten dute.

Laburbilduz, ikus daiteke iritzi anitzak daudela hezkuntza sexualak izan behar dituen helburuei begira. Hala eta guztiz ere, iritzi guztiak bateragarriak direla esan beharra dago.

#### **5.1.7. HAURREK HEZKUNTZA SEXUALA JASOTZEAREN GARRANTZIA**

Aditu guztiek, ikasleek hezkuntza sexuala jasotzea ezinbestekoa dela adierazten dute. Batez ere, norbere burua ezagutzeko, askatasunez bizitzeko, aniztasuna errespetatzeko, elkarbizitza hobea izateko eta gainontzekoak errespetatu eta errespetuzko harremanak sortzeko, LGTBIfobia, aurreiritzi eta estereotipoekin amaituz.

Hortaz, gizarte hobea izate aldera da garrantzitsua hezkuntza sexuala lantzea. Horregatik, berebizikoa da curriculumean egoki txertatzea eta gaiari behar duen garrantzia emanez ikasgeletan kalitatezko lanketa bermatzea.

#### **5.1.8. IRAKASLEEN FORMAKUNTZA HEZKUNTZA SEXUALARI BEGIRA**

Aditu guztiek bat egiten dute hezkuntza sexualaren inguruan irakasleek jasotzen duten formakuntza nahikoa ez dela esaten denean. Izan ere, bostetik lauk unibertsitateko Irakasle Eskolan gai hau ez dela lantzen salatzen dute. Honi aurre egiteko, bi adituk

beharrezkoa ikusten dute hezkuntzara bideratutako graduatan hezkuntza sexualaren inguruko ikasgai bat txertatzea.

Gainera, esan beharra dago, Aldarteko adituak adierazten duen bezala, gai hau irakasleen etengabeko formakuntzan lantzea berebizikoa dela. Eta horretarako beharrezkoa da, elkarrizketatutako sexologia zentro eta elkarteetako adituei laguntza eskatzea. Izan ere, Guztiokekoak oso ondo azaltzen duen bezala, gai hau lantzean profesionalak izan behar gara, hurrei kalitatezko hezkuntza sexuala eskaintzeko eta mezu desegokiak ez helarazteko.

Horretarako, Urtxintxako adituak azaltzen duen moduan, irakasleek dituzten formakuntza orduak lan karga bezala ulertu beharrean, hezkuntza sexuala gogotsu lantzeko erabili daitezke.

#### **5.1.9. HAUR HEZKUNTZAN HEZKUNTZA SEXUALA LANTZEKO MATERIALA**

Arremanitz eta Emaizeko adituek, Haur Hezkuntzan hezkuntza sexuala lantzeko material asko dagoela defendatzen dute. Izan ere, zentzumenak, harremanak, lagunak, familia motak, errespetua eta jatorria bezalako gaiak lantzea ohikoa da Haur Hezkuntzako ikasgeletan. Hori dela eta, irakasleek hainbat baliabide dituzte eskuragarri, baina arazoa da, gai hauek lantzean hezkuntza sexual bezala ez dela identifikatzen.

Materialari buruz hitz egiten jarraituz, Arremanitzeko aditua den Nerea Sanchok *Kilimak* (2006) liburua idatzi zuen. Hau, Haur Hezkuntzako hurrekin hezkuntza sexuala lantzerantz bideratua dago. Horrez aparte, hiru adituk Steilas sindikatuak sortutako *Guía para trabajar la diversidad afectivo-sexual y de genero* (2015) gida aipatzen dute eta, horietako bi adituk, LAB sindikatuak eginiko *Sexu heziketari buruzko gida Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat* (2019) dokumentua ere goraiatzen dute.

Urtxintxakoak aldiz, euren material propioa sortzen dabilta, arestian esan bezala Haur Hezkuntzatik jasotako eskaerari erantzuteko. Hori dela eta, eskola honetara egokitutako saioak prestatzen dabilta.

#### **5.1.10. HEZKUNTZAN HEZKUNTZA SEXUALA LANTZEN DABILTZAN SEXOLOGIA ZENTRO, ELKARTE EDO TALDEAK**

Asko dira EAEn hezkuntza sexualaren inguruan lanean dabiltzan sexologia zentro, elkarte edo taldeak.

Hona hemen elkarrizketatutako zentro eta elkarteak:

- Emaize: <https://emaize.com/>
- Guztiok: <https://www.facebook.com/guztioklgbt>
- Aldarte: <http://www.aldarte.org/es/default.asp>
- Bizkaiko Urtxintxa eskola: <https://urtxintxaeskola.eus/>
- Arremanitz: <https://www.arremanitz.eus/>

Hauetz gain, zentro eta elkarte gehiago dabilta gure autonomia erkidegoan gaia lantzen:

- Gehitu: <https://www.gehITU.org/>
- Berdindu: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/berdindu/>
- Harremanak: <https://www.harremanak.eus/es/>
- Lahia nahia: <https://www.facebook.com/lahianahia.elkartea>
- Emagin: <https://www.bilgunefeminista.eus/eu/Emagin>
- Euskal Herriko sexu heziketa elkarteak: <https://www.ehshe.com/>
- Desirak: <http://www.desirak.net/>
- Naizen: <https://naizen.eus/>

Hauetz guztiez gain, elkarrizketatuek esan bezala, badaude pertsona autonomoak ere ikastetxeetan gaia lantzen. Eta, Emaizeko adituak azaldu bezala, Espainia mailan sexologoek elkarte bat ere badago: AEPS (<https://www.aeps.es/>). Bertan, zentro eta elkarte desberdinek elkar ezagutzeko espazioa dute.

Urtxintxan aldiz, gehienbat herri mugimenduarekin egiten dute lan, bereziki talde feministekin. Hortaz gain, aditu gehienak beraien artean elkarlan handia dagoela eta saretuak daudela adierazten dute.

#### **5.1.11. SEXOLOGIA ZENTRO ETA TALDEEN ESKAINTZA**

Elkarrizketatutako sexologia zentro eta talde bakoitzak eskaintza desberdinak ditu, baina denek eskaintzen dituzte hezkuntza formaleko ikasleentzako tailer edo saioak.

Emaize sexologia zentroak, aholkularitza, terapia eta, lehen esan bezala, ikastetxeentzako formakuntza saioak eskaintzen ditu.

Aldarte elkarteak aldiz, elkar laguntza taldeak eskaintzen ditu. Bertan, esparru psikosoziala lantzen da eta horrez gain, laguntza legala ere eskaintzen du.

Urtxintxako kideek, ikasleentzako mailaz mailako saio eta tailerrak eskaintzeaz gain, irakasle, familia eta jangelako langileentzat bideratutako saioak ere prestatzen dituzte. Eta ez hori bakarrik, hezkuntza ez-formalera bideratutako ikastaroak ere eskaintzen dituzte; azken urteotan “Hezkidetzan aditua” ikastaroa esaterako.

Arremanitz elkarteak, hezkuntza formalera eta ez-formalera bideratutako formakuntzak ematen ditu. Baina prentsarekin kolaborazioak eta terapia sexuala ere egiten dituzte. Terapia honetan, sexu- eta bikote-aholkularitza eskaintzen dute.

Bukatzeko, Guztiokeko adituak ikasle eta irakasleentzako formakuntza saioak burutzen ditu elkartetik aparte sexu hezitzaile gisa, maila pertsonalean profesionalki.

### **5.1.12. SEXU HEZKUNTZAREN AURKAKO MUGIMENDUAK**

Azken urteotan sozialki eta mediatikoki hezkuntza sexualaren kontrako argumentu asko entzuten ari dira. Aditu gehienek, aldarrikapen eta argumentu hauen atzealdean beldurra eta desinformazio handia dagoela uste dute. Honekin batera, hezkuntza sexualaren kontra egiten diren ekintza hauek propaganda mediatikoa besterik ez direla diote, argumentu hauei edukia eta oinarria falta zaizkielako.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta gehiengoak horrela ez duen bizi, Guztiokeko adituak kezkarakin bizi du egoera hau. Izan ere, nahiz eta falazia asko helarazten dituzten pertsona eskuindar hauek, beraien argumentuak norbaitek sinetsiko dituen beldur da. Baina, era berean, pozik dago Euskal Herrian urteetan zehar gai honen inguruan egin den lanarekin. Izan ere, feminismoak indar handia du eta jendeak ez ditu argumentu hauek hain erraz sinesten.

Aipatu berri dugun Euskal Herriko egoerarekin ez datoz bat Emaize eta Urtxintxako kideak. Emaizeko adituak, gizartean aspalditik ezkutaturik zeuden argumentuak direla dio eta Vox bezalako partidu politikoekin argumentu hauek azaleratu egin direla pentsatzen du. Bestalde, Urtxintxako adituak eskoletan lan egin izan dutenean erresistentzia asko aurkitu dituztela aipatzen du eta erresistentzia hauek guztiek oinarri eskuindar berdina dutela azaltzen du. Hortaz, gure artean sexu hezkuntzaren inguruko kontrako jarrerak badaudela ikus daiteke, nahiz eta ez diren hain mediatiko eta ezagunak.

Aditu gehienek bat egiten dute kasu sozial eta mediatiko hauen oihartzunaren zergatian ere. Hau da, feminismoaren gorakada eta honek gizartean duen indarra ikusita, ez dira eroso sentitzen pentsaera eskuindar eta tradizionala duten pertsona

hauek. Hortaz, beraiek ere kaleak eta komunikabideak hartu eta zarata egiten saiatzen ari dira.

Era berean, horrelako ekimen, mugimendu eta argumentuekin ez dela denbora galdu behar adierazten dute adituek. Hau da, lanean jarraitzeko momentua dela uste dute, indarrak horrelako pertsonei kontra egiten xahutu beharrean.

## **5.2. HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASLEAREN ERANTZUNAK**

### **5.2.1. HEZKUNTZA SEXUALA IRAKASLE BATEN IKUSPUNTUTIK**

Sexologia elkarte eta zentroezen gain, irakasle bati ere egin zitzaien elkarrizketa. Irakasle hau Simone Beristain da. Hezkuntzako profesional honek, urte asko daramatza hezkuntza munduan lanean, bai eskola edo ikastola desberdinetan zein hezkuntzara bideratutako materiala sortzen. Hori dela eta, esperientzia handia duen irakaslea izateaz gain, bere bizitza profesionalean zehar errealitate eta egoera desberdinak bizitzeko eta ikusteko aukera izan du.

Behin hau azalduta eta hezkuntza sexualaren inguruko adituak esandakoa aztertuta, irakasle honek izandako esperientzia entzun eta adituek arestian esandakoarekin kontrastatuko da, irakasleek bizi duten egoera ezagutzuz hauen arteko ahots kualifikatu baten bidez.

Irakasle honek bat egiten du elkarrizketatutako aditu guztiekin, hezkuntza sexuala eta sexualitatea oraindik tabu bat direla esaten duenean. Orain arte oso gutxi landu eta hitz egin den gai bat dela azaltzen du. Honekin batera, oraindik gai honetaz hitz egitea asko kostatzen zaigula eta, bere kasuan adibidez, guraso, familia eta ikasgela askotan gaia ez dela lantzen ikusi du. Izan ere, gehienok jaso dugun heziketa sexualagatik, oraindik tratatu gabeko istorioak ditugu barnean eta, hori dela eta, asko kostatzen zaigu oraindik txikienekin honetaz lasai eta aske hitz egitea.

Hezkuntza arautuari buruz hitz egingez, bertan egiten den lanketa urria dela adierazten du hezkuntzako profesional honek, hau nahikoa ez dela esatearekin batera. Lehen Hezkuntzari begira eta irakasle honen esperientzian oinarrituz, hezkuntza sexuala lantzea irakasleen esku dagoela nabarmentzen du eta hau lantzen duten irakasleek ikuspuntu biologiko eta tradizionalista batetik lantzen dutela azaltzen du. Arestian aipatutako adituen hitzak aztertuz, honetan ere iritzi bateratua dutela ikus daiteke.

Haur Hezkuntzako etapan aldiz, ez dela lantzen dio. Ipuinen batean edo egunerokoan sortu daitezkeen egoera desberdinetan soilik lantzen da eta ez ikasgela guztietan.

Azken honekin, Aldarte eta Guztiok elkarteko adituak ados daude. Hala eta guztiz ere, Emaizeko eta Arremanitzeko adituek esan bezala, Haur Hezkuntzako etapan irakasleek ez dute hezkuntza sexual bezala identifikatzen ikasgelako hainbat egoera eta dinamika. Hori dela eta, nabarmentzekoa da irakasleekin Haur Hezkuntzan eman daitekeen hezkuntza sexuala definitzeko beharra. Hau dena ikusirik, irakasle honek hezkuntza sexualaren helburua, orain arte ezkutuan egon den gaiari naturaltasun bat ematea dela defendatzen du.

Irakasle honek nabarmendutako beste gai bat Haur Hezkuntzako gradu osoan zehar hezkuntza sexualaren inguruko aipamen bat ere ez zuela jaso da. Eta ez hori bakarrik, irakasle honek hezkuntza munduan berrogei urte daramatza lanean eta hezkuntza sexualaren inguruko bi saio soilik jaso dituela jakinarazten du. Hau ikusirik, irakasleek ikasgeletan hezkuntza sexuala lantzeko jakintza, formakuntza eta baliabide falta dutela ikus daiteke. Horrekin lotuta, haurrekin hezkuntza sexuala lantzeko material falta dutela adierazten du irakasle honek. Izan ere, ez du ezagutzen ia materialik gaia jorratzeko.

Bizitza profesional osoan zehar pairatutako hutsune honi buruz hitz egiten jarraituz, ezjakintasunaren aurrean eta haurrei kalitatezko heziketa sexual bat eskaintze aldera, Guztiokeko adituak bat egiten du Simone Beristain irakaslearekin. Izan ere, garrantzitsutzat jotzen du lehenengo norbere burua formatu, diskurtso egoki bat eraiki eta ondoren haurrekin esku-hartzea. Hori dela eta, nahiago du ez esku-hartzea, gaia desegoki lantzea baino. Batez ere, haurrei mezu oso indartsuak helarazten zaizkielako hezkuntza sexualari buruz hitz egiterakoan eta hauek bizi osoan zehar eragingo dietelako.

Sexualitateari buruz hitz eginez, irakasle honek kontzeptu hau definitzeko zailtasunak dituela adierazten du, orain arte gutxi landu duen gai bat delako. Hala eta guztiz ere, arestian agertutako adituek esandakoarekin bateragarria den definizio bat ematen du: maitasuna, goxotasuna, plazera eta bizipena elkartrukatzeko, bizitzeko eta gozatzeko gauza, tresna, bizipen edo sentsazioa dela uste du. Honekin batera, gaiaren inguruan formatzeko eta pertsonalki hazteko gogotsu dagoela adierazten du.

Sexualitatea alde batera utziz eta gaur egun sozialki eta mediatikoki hezkuntza sexuala jasaten ari den egoerari erreparatuz, adituekin guztiz ados dago irakasle hau. Hau da, pentsaera eskuindar-kontserbadore hau duten pertsonak egiten duten zarataren zergatia, haurrek kalitatezko hezkuntza sexuala jasotzeko bidearen hasieran gaudelako da. Izan ere, geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari den gaia da eta geroz eta pertsona gehiago daude haurrek hezkuntza mota hau jasotzearen alde.



Hortaz, beraiek oinarririk gabeko argumentuak erabiliz, hezkuntza publikoari eta hezkuntza sexualari eraso egiten diotela uste du irakasle honek.

### **5.3. LABURPENA**

Jarraian, arestian ikus daitezkeen emaitzak kontuan izanik gai bakoitzari buruz adituek eta irakasleak aipatutakoaren laburpena aurki daiteke.

	ADITUAK	IRAKASLEA
SEXUALITATEA	Sexualitatea aldakorra, dinamikoa eta prozesu amaigabea da. Honek, gure burua nola eraikitzen dugun definitzen du eta gure buruarekin (zer sentipen, bizipen, desio, jarrera eta abar ditugun) eta gainontzekoekin nola sartzan garen harremanetan zehazten du.	Maitasuna, goxotasuna, plazera eta bizipena elkartrukatzeko, bizitzeko eta gozatzeko gauza, tresna, bizipen edo sentsazioa da.
HEZKUNTZA SEXUALA GAUR EGUN	Hezkuntza sexuala esparru desberdinetan lantzen da gaur egun. Hala nola, hezkuntza formalean, ez-formalean eta informalean. Hala eta guztiz ere gaia gehiago landu beharko litzateke, oraindik tabua delako.	Hezkuntza sexuala tabu bat da. Gaia gutxi landu eta honi buruz gutxi hitz egiten da.
HEZKUNTZA SEXUALA HEZKUNTZA ARAUTUAN	Hezkuntza sexuala lantzea ikastetxeen eta irakasleen esku dagoenez batzuetan ikuspuntu tradizional batetik lantzen da eta beste batzuetan ez da lantzen edo ez da behar beste lantzen. Honi erantzuteko, beharrezkoa da curriculumean ganoraz txertatzea eta formakuntza hau ikas komunitate osora zabaltzea.	Hezkuntza sexualaren lanketa urria egiten da hezkuntza arautuan eta egiten dena ez da nahikoa. Horrez gain, gehienetan ikuspuntu biologiko eta tradizionalista batetik lantzen da gaia.
HEZKUNTZA SEXUALA HEZKUNTZA ARAUTUKO ZEIN ETAPATAN	Oro har DBHra eta LHko azken ziklora bideratzen da hezkuntza sexuala. Hala eta guztiz ere, HHko etapan inkontzienteki lantzen den gaia dela esan daiteke, ez delako hezkuntza sexual bezala identifikatzen.	Haur Hezkuntzako etapan ez da gaia lantzen. Soilik egoera puntualetan.
HEZKUNTZA SEXUALA HEZKUNTZA ARAUTUAN NOLA ETA NOIZ	Ikastetxeek zehazten dute noiz landu. Normalean adituengana jotzen dute gaia lantzeko eta hauek, haur taldea ezagutzeko eta hauen beharrik identifikatzeko erabakitzen dute nola landu. Saioak normalean 4, 6 edo 8 orduko iraupena izaten dute.	Ipuinak kontatzen edo egunerokoan sortzen diren egoera desberdinetan lantzen da hezkuntza sexuala.
HEZKUNTZA SEXUALA ZEIN HELBURUREKIN	Iritzi anitzak daude: norbere burua ezagutzea, onartzea eta modu positiboan adieraztea eta gainontzekoekin harremanetan sartzea, kritikotasuna eta autonomia lortzea erabakitzeke askatasun gehiago izateko, errespetua, gorputza ezagutzea, plazeraren bizipena eta mugak lantzea eta ikastetxeetan aurki daitezkeen egoera deserrosoak ebaztea.	Helburu nagusia orain arte ezkutuan eduki dugun gai bati naturaltasuna ematea da.
HAURREK HEZKUNTZA SEXUALA JASOTZEAREN GARRANTZIA	Ezinbestekoa da haurrek hezkuntza sexuala jasotzea, gizarte hobea izateko. Hala nola, norbere burua ezagutzeko, askatasunez bizitzeko, aniztasuna errespetatzeko, elkarbizitza hobea izateko eta gainontzekoak errespetatzeko.	Oso garrantzitsua da adin hauetan haurrak euren burua definitzen hasten direlako eta jarrera edo joera batzuk inposatu egiten dizkiegulako. Hau ondo kudeatu eta lantzeko, beharrezkoa da hurrei azalpen argi, zintzo eta egiazkoak ematea. Batez ere, etorkizun lasaia go bat izan dezaten.
IRAKASLEEN FORMAKUNTZA HEZKUNTZA SEXUALARI BEGIRA	Irakasleek jasotzen duten formakuntza ez da nahikoa. Hori dela eta, hezkuntza graduatan gaia lantzearen beharra ikusten da. Horrez gain, irakasleen etengabeko formakuntzan ere landu beharreko gaia da.	Jakintza, formakuntza eta baliabide falta handia dugu.
HAUR HEZKUNTZAN HEZKUNTZA SEXUALA LANTZEKO MATERIALA	Aditu batzuen iritziz, irakasleek hainbat baliabide dituzte eskuragarri, baina arazoa, gai hauek lantzean hezkuntza sexual bezala ez dela identifikatzen da. Hala eta guztiz ere, Nerea Sanchok <i>Kilimak</i> (2006) liburua idatzi zuen, HHko hurrekin sexualitatea lantzeko liburua. Horrez aparte, Steilas sindikatuak sortutako <i>Guía para trabajar la diversidad afectivo-sexual y de genero</i> (2015) eta, LAB sindikatuak eginiko <i>Sexu heziketari buruzko gida Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat</i> (2019) dokumentua ere aurki daitezke.	Ez dut ia Haur Hezkuntzara bideratutako materialik ezagutzen.
SEXU HEZKUNTZAREN AURKAKO MUGIMENDUAK	Argi dago mugimendu honen atzean beldurra eta gaiarekiko desinformazio handia dagoela. Hala eta guztiz ere, aditu batzuk argumentu hauek gure artean aspalditik ezkutatuak zeudela uste dute. Beste aditu batzuek aldiz, EAE horrelako egoera edo argumentuak aurkitzea zailagoa dela defendatzen dute. Nolanahi ere, sexu hezkuntzaren aurkako mugimendu honen gorakada, feminismoak egin duen gorakadari erantzuna besterik ez da.	Pentsaera eskuindar hau duten pertsonak egiten duten zarataren zergatia, haurrek kalitatezko hezkuntza sexuala jasotzeko bidearen hasieran gaudelako da. Izan ere, geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari den gaia da eta geroz eta pertsona gehiago daude haurrek hezkuntza mota hau jasotzearen alde.

## 6. FORMAKUNTZA PROPOSAMENA

Sansaburu ikastetxeko irakasleentzat diseinatutako esku-hartzean erabiliko den formakuntza proposamen hau, jarraian ikus daitekeen bezala, lau saioz osaturik dago. Hurrengo lerroetan laburki aurkeztuko da egindako lana, baina sakonago ezagutzeko jo lehen eranskinera, bertan baitago programazio zehaztua.

Lehenengo saioaren helburua, sexua eta generoa kontzeptuez hitz egin eta hauei buruz hausnartzea da. Horretarako, dinamika desberdinak erabiliko dira eta hauen bitartez, bi kontzeptu hauek denon artean definitu eta hauen inguruan hausnartuko da, norberak izandako esperientzietatik abiatuta orain arte ikasitakoa deseraikiz. Saio honek, sexua eta generoa bezalako kontzeptuen inguruko ikuspuntu bateratu bat izatea ahalbidetzen du, ondorengo saioetan sexualitatea eta hezkuntza sexuala gaiak jorratzeko ikuspuntua zabalduz (ikus I. eranskina).

Bigarren saioan, sexualitateaz hitz egingo da. Horregatik, saio honen helburua sexualitate kontzeptuaren inguruan hausnartzea da. Horretarako, lehenengo saioan bezala, dinamika desberdinak erabiliko dira, gaiaren inguruan hausnartu, eztabaidatu eta definitzeko. Modu honetan, norberak sexualitatea bere erara ulertzea lortuko du, aurre-jakintzak kritikotasunez aztertuz eta diskurtso askeago edo zabalago bat eraikiz (ikus I. eranskina).

Hirugarren saioa hezkuntza sexuala lantzeko dago pentsatua. Honek, orain arte norberak jasotako eta gaur egungo ikasleentzat bideratu behar zaien hezkuntza sexualaren inguruan hausnartzea du helburu. Hau burutzeko, lehenengo bi saioetan bezala dinamika desberdinak erabiliko dira. Hauek, hausnarketan oinarrituak egongo dira eta norberaren esperientzia edukiko dute abiapuntutzat. Horrez gain, haur sexualitateari buruz hausnartu, gaia lantzeko beharra azpimarratu eta irakasle guztiak Haur Hezkuntzan hezkuntza sexualaz hitz egiteko eta hau lantzeko kapazak direla nabarmentzen da saio honetan (ikus I. eranskina).

Laugarren saioa aldiz, hezkuntza sexuala ikasgeletan nola landu daitekeen deskubritzera dago bideratua, hau baita saio honen helburua. Horretarako, parte hartzaile guztien artean Haur Hezkuntzako etapan hezkuntza sexuala lantzeko zer gai landu daitezkeen zehaztu eta gai bakoitza lantzeko ideiak jasoko dira. Modu honetan, irakasleek baliabideak izango dituzte ikasgeletan gaia lantzeko (ikus I. eranskina).

## 7. HAUSNARKETA, EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

### 7.1. HAUSNARKETA

Gradu Amaierako Lan honetan kanpo faktoreak direla medio (osasun krisialdi globala) ez dut izan prozesua behar bezala bukatzeko aukerarik.

Hasteko, adituek gaiaren inguruan argitaratu dutena ezagutu nuen eta hori gaiaren inguruan gehiago ikasi eta nire ideiak antolatzeko izan zitzaidan baliagarria. Behin gaia arakutzen hasita, pentsatzen nuena baino interesgarriagoa egin zitzaidan, oraindik ikasteko asko nuela konturatu nintzelako. Ondoren, gaur egun hezkuntzan profesionalki gaia lantzen dabiltzan adituekin biltzeko aukera izan nuen eta hauei elkarrizketa eginez, nire ideiak osatu eta egungo egoera zein den ikusteko aukera izan nuen. Esan beharra dago, lan honetarako burutu behar izan ditudan elkarrizketak izan direla nire bizitzan burutu ditudan lehenak eta esan behar dut nahiz eta hasieran apur bat urduri egon nintzen adituekin biltzerako momentuan denek oso ondo tratatu nindutela eta oso eroso sentitu nintzela haiekin.

Jarraian, ikaskuntza-zerbitzua metodologian murgildu eta Eibarko J. A. Mogel ikastetxeko Sansaburu eraikineko irakasleekin jarri nintzen kontaktuan ordura arte ikasitakoarekin haiei zerbitzua emateko asmoarekin. Modu honetan, formakuntza bertan burutzea adostu genuen. Aipatzeko da, irakasle hauekin konfiantza maila handia dudala, bertan burutu dudalako graduako azken praktikaldia eta batzuk txikitatik ezagutzen ditudalako. Hori dela eta, ikastetxe honetako irakasleekin formakuntza saioak burutzeko ilusio berezia nuen. Izan ere, irakasle hauek asko erakutsi didate bai etorkizuneko irakasle bezala, bai ni haurra nintzenean.

Gero, irakasleei zuzendutako hamar orduko saioko formakuntza diseinatu nituen aurretik egindako lanean oinarrituz, irakasle hauen ezaugarriak ezagututa eta adituen gomendioak kontuan hartuta. Formakuntza saio hauen diseinua bukatzean, Gradu Amaierako Lan honetatik gehien motibatzen ninduen atala zela konturatu nintzen. Hau da, nik orain arte ikasitakoa Sansaburu ikastetxeko irakasleekin partekatzeak eta berain esperientzia eta iritziak entzuteak motibatzen ninduen gehien.

Gradu Amaierako Lana bideratua zegoenean eta irakasleekin formakuntza saioen datak zehaztu eta gero aurkitu nuen lehenengo oztopoa. Mundu mailan Covid-19ak eragindako arrisku egoeraren ondorioz haurrak eskoletara ez joatea erabaki zuen Espainiako gobernuak. Orduan, nire lana kolokan jartzen hasi zen eta horrek asko

urduritu ninduen. Momentu horretan, hala ere, irakasleak ikastetxeetan haur gabe zeudenez eta egoera txarrera zihoala ikusirik, irakasleek formakuntza saioei lehenetasuna ematea erabaki zuten. Formakuntzarekin aurrera egingo genuela zirudien, egoerak egoera.

Hori dela eta, data berriak zehaztu eta saio guztiak aste berean egitea pentsatu genuen. Orduan, nire lana kolokan jarri zen berriro eta horrek asko urduritu ninduen. Izan ere, ez genuen formakuntza saioak burutzen hasteko aukerarik izan. Zehaztutako data berrietan, Espainiako gobernuak alarma egoera deklaratu eta gizarte osoaren konfinamendu egoera dekretatu zuelako. Hori dela eta, ez genuen aukerarik izan zerbitzua eman eta saioak burutzeko. Kontuan izanda, zerbitzua burutzea Gradu Amaierako Lan honetako zati politena iruditzen zaidala, asko desmotibatu nintzen egoera honen aurrean. Gainera, irakasleei egoerara egokituz aukera desberdinak eskaini nizkien (online egitea, ...), baina hauek ez zuten onartu. Hori dela eta, orain arteko lana kinkan zegoela sentitu nuen.

Hau kontuan izanda esan beharra daukat, hasieran GRAL honetan zehaztutako helburu guztiak betetzea ezinezkoa egin zaidala. Izan ere, irakasleekin ez esku-hartzean, “irakasleekin batera sexualitateaz eta hezkuntza sexualaren inguruan hausnartzea” eta “irakasleen formakuntzan hezkuntza sexualaren garrantzia ezagutzea” helburuak betetzea ezinezkoa egin zait. Batez ere, ez dudalako lortu irakasleen egoera aldatzea diseinatutako formakuntza martxan jarritz.

Hala eta guztiz ere, ni gaiaren inguruan formatu naiz. Hau horrela izanik, GRAL honetako helburu nagusia betetzea lortu dut: “Haur Hezkuntzako etapara bideratutako sexu hezkuntzan trebatzea eta gai hau hezkuntza formalean lantzearen garrantzia azpimarratzea”. Eta ez hori bakarrik, Haur Hezkuntzari begira hezkuntza sexualaren inguruko jakintzak eskuratu dut, gaur egun praktikan hezkuntza sexuala nola jorratzen den ezagutzeko aukera izan dut, eta sexualitatea eta hezkuntza sexualaren inguruko informazioa biltzea lortu dut.

Hala eta guztiz ere, Sansaburu ikastetxeko irakasleak hezkuntza sexualaren inguruko formakuntza jaso nahi dutela ikusiz eta nik egindakoa lana praktikan jartzeko nahia ikusirik, adostu dugu egoera hobetu bezain pronto burutuko dugula formakuntza. Prest dauzkat saioak, bakarrik falta da data bat zehaztea, elkartzeko aukera dugunean. Honekin, ikaskuntza-zerbitzuari bukaera eman, gaiari buruz gehiago ikasi eta hasieran zehaztutako helburu guztiak beteko ditudalakoan nago.

## 7.2. EZTABAIDA

Lortutako emaitzak marko teorikoan aipatutakoarekin alderatuz, zenbait alorrek lotura estua dutela ikus daiteke.

Hasteko, ateratako emaitzek bat egiten dute Furlanik esandako hainbat punturekin. Sexualitateaz eta hezkuntza sexualaz hitz egiteak nolabaiteko erresistentzia dakar, ez bakarrik familia eta eskolaren partetik, gizarte osoaren partetik ere (2011). Izan ere, aztertutakoaren arabera oraindik ez da lortu gaiaz naturaltasunez hitz egitea.

Bestalde hezkuntza formalari buruz hitz eginez, emaitzetan ikus daiteke oro har gaia ez dela lantzen, edo oso lanketa urria egiten dela. Horrez gain, irakasleek oso material tradizionalista dute eta biologia ikuspuntu soil batetik lantzen dela aipatzen dute elkarrizketatutako aditu eta profesionalak. Honek bat egiten du marko teorikoan, Furlanik (2011) aipatutakoarekin.

Hala eta guztiz ere, Haur Hezkuntzako etapan zentratuz eta emaitzei erreparatuz, iritzi desberdinak ikus daitezke gaiarekiko egiten den lanketaren inguruan. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatutako profesional guztiek, marko teorikoko adituekin bat datoz: hezkuntza sexuala curriculumean presente egotea beharrezkoa da (*Skolae*, 2019). Izan ere, gaur egungo curriculum mugatua eta erredukzionalista da (Furlani, 2011).

Eta ez hori bakarrik, Haur Hezkuntzako etapan gaia lantzen hastearekin marko teorikoko adituek eta elkarrizketatutako profesionalak bat egiten dute. Izan ere jakina da, hezkuntza sexuala haurtzarotik landu ezean berandu hastea dela. Ez da beharrezkoa galdera edo egoera konkretuei itxotea, lehenago hasi behar da lantzen (CEAPA, 2010). Hori dela eta haurren lehenengo urteetan hasi behar da hezkuntza sexuala lantzen.

Irakasleen formakuntzari buruz hitz egitean, kontuan hartu behar da, ikasgeletan hezkuntza sexuala lantzeko, beharrezkoa dela irakasleak honetan formatuak egotea. Hau da, gaiari buruzko gaitasun espezifikoak landu beharko dituzte irakasleek haurrei sexualitatea modu argian azaltzeko (Unesco, 2018). Emaitzei erreparatuz marko teorikoan esandakoarekin bat datozela esan beharra dago, nahiz eta oraindik, ibilbide handia dagoen aurretik. Baina profesionalak izan behar gara horrelako gaiak lantzerakoan eta horretarako irakasleek formakuntza jasotzea berebizikoa da.

Irakasleen formakuntza alde batera utziz eta sexualitatea nola ulertzen den aztertuz, aipatu beharra dago kontzeptu honen definizio asko aurki daitezkeela. Gehienak bateragarria dira eta marko teorikoan eta emaitzetan aipatutakoak osagarriak dira.

Argi dago sexualitatea gizakiaren alderdi nagusi bat dela. Gizakion alderdi asko barnebiltzen dituen kontzeptua da. Azken hau kontuan izanik eta ikasgeletan egiten den praktika behatuz, sexualitatea ezin da ikuspuntu biologiko edo mediku soil batetik ulertu, honen alderdi sozial eta pertsonalari erreferentziarik egin gabe (*Sko/ae*, 2019).

Horrez gain, aditu guztiak ados daude, sexualitatea bizitza osoko etapa guztietan presente egongo dela esaten dutenean. Eta ez hori bakarrik, etapa bakoitzean ezaugarri eta zentzu bat duela aipatzean ere. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako haurren ezaugarriak kontuan izanik landu behar da sexualitatea Haur Hezkuntzako ikasgeletan.

Bukatzeko, berriro ere hezkuntza sexualean zentratuz, urteak daramatzagu hezkuntza sexualaren kontrako argudio eta erresistentzia jarrerak entzuten eta bizitzen. Gaur egun oraindik ez denez lortu gaia normalizatzea, horrelako jarrera erasokorrak sortzen dira. Hauek, nagusiki desinformaziotik edo ezjakintasunetik sortuak dira eta ez diete haurrei ez gizarteari onurarik ekartzen. Jarrera hauek ekiditeko modua hezkuntza sexuala haurren lehen urteetatik lantzen hastea dela ikus daiteke emaitzetan. Eta horretarako ez ditugu ahaztu behar hitz hauek: paradigma politiko zein pedagogikoa edozein izanda ere hezkuntza sexualari lehentasuna eta garrantzia eman behar zaio (Furlani, 2011).

### **7.3. ONDORIOAK**

Hezkuntza sexualari buruzko gradu amaierako lan honen bitartez hainbat kontzeptu eta ideia ezagutzeko aukera izan dut. Horrez gain, gaiaren inguruan ikasi eta aldatuko nituzkeen zenbait faktore antzeman ditut.

Hasteko, esan beharra dago urteetan zehar zeharka, inkontzienteki eta tabu askorekin landu den gaia izan dela hezkuntza sexuala. Azken urteetan aldiz, ikastetxe batzuetan hezkuntza sexuala lantzeko saiakerak badaudela ikus daiteke, adituek azaldu bezala. Horregatik, gaia geroz eta gehiago lantzen ari dela esan daiteke, nahiz eta oraindik ez den nahikoa.

Bestetik, hezkuntza mota hau lantzearen muga nabarienteko bat administrazioek gaiari esleitzen dioten derrigortasun eza da. Hori dela eta, oro har hezkuntza arautuan

puntualki lantzen den gaia da eta ez da lantzen era egokian ez badute adituek edo profesionalak esku-hartzen.

Muga gehiago, oro har, hezkuntza sexuala gauzatzen den testuinguruetan eta baliabide edo edukietan aurki daitezke. Hau da, ateratako emaitzen arabera, alde batetik, oraindik irakasle edo gurasoen partetik gaiarekiko erresistentziak daudela ikus daiteke eta bestetik, irakasleek ikasgeletan hezkuntza sexuala lantzeko erabiltzen duten materiala oso zaharkitua eta tradizionalista dela.

Adituek ikastetxeetan burutzen dituzten formakuntzak nahiz eta orokorrean DBH eta LHko etapetara bideratuak egon, Haur Hezkuntza etapari erreparatuz, hezkuntza sexuala gainontzeko etapekin konparatuz gehiago lantzen dela esan daiteke ateratako emaitzen arabera. Etapa honetan arazo nabariena, hezkuntza sexuala ez dela identifikatzen da. Hau da, Haur Hezkuntzan landu behar den hezkuntza sexuala ez dagoela definituta eta hortaz modu inkontzientean egiten dela. Hori dela eta, hurrei askotan etorkizuneko hezkuntza sexuala baldintzatuko duten mezu desegokiak helarazteko aukera dago, esku-hartze desegokiak burutuz.

Horrez gain, funtsezkoa da Haur Hezkuntzako etapan hastea hezkuntza sexuala lantzen. Izan ere, urte hauetan jasoko dute hurrek, etorkizunean barneratuko duten ikaskuntzaren oinarria. Norabide horretan esan daiteke, bizitzako lehen urte hauetan hurrek jasotzen duten hezkuntza sexualak baldintzatuko dituela hauek etorkizunean izango dituzten harremanak sortzeko, nor bere burua ezagutzeko eta gizarteratzeko ereduetan. Hau dena ikusirik, hezkuntza sexuala egoki gauzatzen dela bermatzeko zenbati neurri hartzea beharrezkoa da.

Hasteko arestian aipatu bezala, irakasleek oro har ez dakite zer hezkuntza sexual mota landu daitekeen Haur Hezkuntzan. Hori dela eta, beharrezkoa da Haur Hezkuntzako Graduan (eta hezkuntzara bideratutako gainontzeko graduetan) hezkuntza sexualaren inguruko ikasgai bat txertatzea. Modu honetan, bakoitzak dituen tabuak apurtu, gaia normalizatu eta ikasgeletan gaia lantzeko baliabideak eta jakintzak eskuratuko lituzkete etorkizuneko irakasle guztiek.

Bestalde, Heziberri 2020 dokumentuan gaiak behar duen garrantzia eman eta curriculumean egoki txertatu beharko litzateke. Horrela, ikasgela guztietan lantzea bermatuko litzateke. Eta ez hori bakarrik, irakasleek adin bakoitzean zer landu behar den errazago jakingo lukete eta hezkuntza sexuala era jarraituan eta esplizituki lantzea lortuko litzateke, ez zeharka eta puntualki orain egiten den bezala.



Neurri hauez gain, gradu amaierako lan hau burutzean, sexualitatea pertsona guztiok barnebiltzen gaituen gaia dela ikasi dut. Kontzeptu hau bakoitzak bere modura ulertzen duen arren, mundua era batera edo bestera ulertzeko modua dela esan daiteke. Honen bidez, norbere burua eta gainontzekoak ezagutu eta elkarrekin harremanak izateko balio du. Hori dela eta beharrezkoa da hezkuntza sexuala lantzea errespetuzko harremanak izaten ikasteko, gorputzak eskaintzen dizkigun aukera guztiez jabetzeko, pertsonak anitzak garela ohartzeko eta aurreiritziak gutxitzeko. Funtsean, gizarte hobea eraikitzeko. Hau dena ikusirik, hezkuntza sexuala gainontzeko ikasgai edo eremuak bezain garrantzitsua dela esan daiteke.

Bukaerako ondorio gisa, lan hau burutu aurretik sexualitatea eta hezkuntza sexualaren inguruko ideia orokor bat nuen arren, autore eta aditu ezberdinek esandakoa irakurri eta entzun ostean, gaiaren inguruan asko ikasi dudala esan dezaket. Gradu amaierako lan honetan gai hau lantzean, graduan zehar izan dudan hutsune bat bete eta nire formakuntza osatu dudala uste dut. Hori dela eta, bai akademikoki eta bat pertsonalki hazi egin naiz. Bestalde, niretzat ezezaguna zen ikaskuntza-zerbitzua metodologia berritzailearen nondik-norakoak ezagutzeko aukera izan dut. Nahiz eta arestian esan dudanez bezala oraingoz ez dudanez prozesua amaitzeko aukerarik izan, itxialdia amaitu eta eskoletara bueltatzeko aukera dugunean gogoz burutuko dut hasitako bide hau.

## 8. BIBLIOGRAFIA

Aramburuzabala, P., Cerrillo, R. eta Tello, I. (2015). Aprendizaje-servicio: una propuesta metodológica para la introducción de la sostenibilidad curricular en la universidad. *Revista de curriculum y formación del profesorado*, 19(1), 79-95.

Bilgune Feminista. (2011). Hezkidetza lau haizetara. 2019ko abenduaren 11n berreskuratua:  
[https://issuu.com/ehbfeminista/docs/hezkidetza\\_lau\\_haizetara\\_egitasmoa](https://issuu.com/ehbfeminista/docs/hezkidetza_lau_haizetara_egitasmoa)

CEAPA. (2010). Educación sexual desde la familia (o cómo no quedarse al margen): infantil y primaria (18). 2019ko abenduaren 5ean berreskuratua:  
<http://redined.mecd.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/135483/curso18.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

De la Cruz, C., eta De la Cruz, M. (2011). No les cuentas cuentos. Madrid: CEAPA. 1-28.

EAE-ko Hezkuntza-sistamarako II. hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean. (2019). *Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila*. 2019ko azaroaren 28an berreskuratua:  
[https://bideoak2.euskadi.eus/debates/debate\\_1202/II\\_HEZKIDETZA\\_PLANA-EUS.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/debates/debate_1202/II_HEZKIDETZA_PLANA-EUS.pdf)

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Hezkuntza Saila. (2019). EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza-plana. 2019ko azaroaren 17an berreskuratua: <https://www.irekia.euskadi.eus/mobile/eu/news/52629>

Faccioli, A. M., eta Ribeiro, C. (2003). Educación sexual en lo cotidiano de la escuela. *Educar*, 31. 67-85.

- Fernandez, A. I. (2009). La coeducación en educación infantil. Desarrollo de estereotipos sexuales y actuación educativa. *Innovación y experiencias educativas*, 54,1-9.
- Furlani, J. (2011). *Educação sexual na sala de aula*. São Paulo: Autêntica.
- Heziberri 2020, Haur Hezkuntzako curriculum, 2019ko abenduaren 4ean berreskuratua:  
[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43573/eu/contenidos/informacion/heziberri\\_2020/eu\\_heziberr/adjuntos/Heziberri\\_2020\\_e.pdf](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43573/eu/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_heziberr/adjuntos/Heziberri_2020_e.pdf)
- Malo, A. (2012). ¿El derecho a una educación sexual? Entre los discursos de salvación y la ausencia del conocimiento. *Educatio Siglo XXI*, 30, 207-228.
- Mendia, R. eta Moreno, V. (2010). Aprendizaje y servicio solidario: una estrategia para la inclusión social. *Guías zerbikas 3*. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.
- Munduko Osasun Erakundea. (2018). La salud sexual y su relación con la salud reproductiva: un enfoque operativo. 2019ko azaroaren 20an berreskuratua:  
[https://www.who.int/reproductivehealth/publications/sexual\\_health/sh-linkages-rh/es/](https://www.who.int/reproductivehealth/publications/sexual_health/sh-linkages-rh/es/)
- Rubio, L. (2007). *Aprendizaje y servicio solidario*. Zerbikas fundazioa, 0. Bilbo: Zerbikas Fundazioa.
- Tapia, M. N. (2016). *Inserción curricular del aprendizaje-servicio en la Educación Superior*. Bueno Aires: CLAYSS.
- Torregrosa, I. (2019). *Sexu heziketari buruzko gida Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleentzat*. Berreskuratua: <http://www.infoadm.org/images/Dokumentuak-2019/Sexu-heziketari-buruzko-gida-Haur-eta-Lehen-Hezkuntzako-irakasleentzat.pdf>
- Puig, J.M., de la Cerda, M., Graell, M., Martín, X. eta Muñoz, Á. (2009). *Aprendizaje Servicio: ejemplos y definiciones*. Bartzelona: GRAO

Puig, J. M., Gijón, M., Martín, X. eta Rubio, L. (2011). Apredizaje-servicio y Educación para la ciudadanía. Barcelona: Universitat de Barcelona. 2020ko martxoaren 19an berreskuratuta: [http://www.revistaeducacion.educacion.es/re2011/re2011\\_03.pdf](http://www.revistaeducacion.educacion.es/re2011/re2011_03.pdf)

Compunet Amigo. (2014). Si pudieras cambiar una sola parte de tu cuerpo - ¿Qué cambiarías?. Berreskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=2IKlpD37CPI>

Skolae. (2019). *El Programa SKOLAE, un itinerario para aprender a vivir en igualdad*. 2019ko azaroaren 25ean berreskuratua: <https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/1325202/Libro+SKOLAE+CAST+web.pdf/1ba58d8b-d13b-4f2d-0fc1-9c5e99d5946e>.

Outtheastern Guide Dogs. (2018). PiP I A Short Animated Film. Berreskuratua: [https://www.youtube.com/watch?v=07d2dXHYb94&list=PLTRSqIscM-UAev6D\\_q9F7-ip489JZTbfm](https://www.youtube.com/watch?v=07d2dXHYb94&list=PLTRSqIscM-UAev6D_q9F7-ip489JZTbfm)

UNESCO. (2018). *Orientaciones técnicas internacionales sobre educación en sexualidad*. 2019ko abenduaren 17an berreskuratua: <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000265335>

Vazquez, A. (1998). Vazquez, Amaia. Hik Hasi. Berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/19981201/vazquez-amaia>

León, I., Tsvintarnaia, I., Martínez, J., Gamito R. (2018). Genero ikuspuntutik zer nolako lanketa egiten da haur hezkuntzan?. In Ros, I. (Ed). *XXV jornadas de investigación en psicodidáctica*. Gasteiz:Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 206-219.

## 9.ERANSKINAK

### I. ERANSKINA: Formakuntza proposamena

LEHEHENGO SAIOA	
IRAUPENA: Bi ordu	
HELBURUA: Sexu eta genero kontzeptuez hitz egin eta hauei buruz hausnartzea, dinamika desberdinen bitartez, geroago sexualitatea eta hezkuntza sexuala gaiak jorratzeko.	
1. SARRERA	IRAUPENA: 5 minutu
Ikaskuntza-zerbitzuaren eta gainontzeko saioen nondik norakoak labur azaldu, lehenengo saio honetako helburua adierazi eta ongi etorria eman bertaratu direnei.	
2. GURE BURUAK EZAGUTU	IRAUPENA: 15 minutu
MATERIAIALA: Paperak eta boligrafoak	
<p>Paper batean, norbera nor den azaldu beharko du bakoitzak. Jarraian, dinamizatzaileak paper denak jaso, nahastu eta bakoitzari bat emango dio. Gero, denok idatzitakoa irakurriz bira bat egingo da eta amaitzeko galdera hauek airera botako ditu dinamizatzaileak:</p> <p>Gure identitatea nola eraikitzen dugu?</p> <p>Zerikusirik dauka gure sexuarekin?</p> <p>Zenbatek aipatu dugu sexua edo generoa?</p>	
3. AURKEZPENA	IRAUPENA: 15 minutu
Dinamizatzaileak generoa eta sexuarekin lotutako hainbat objektu eramango ditu (mozorroak, jostailuak, arropa) ikasgelara eta denok biribilean gaudelarik, erdian kokatuko ditu objektu hauek. Ondoren, banan-banan norbere burua aurkezteko bakoitzak nahi duen informazioa emango du eta hautatutako objektua zergatik azaldu beharko du.	

4. IDEIA HODEIAK	IRAUPENA: 35 minutu
MATERIALA: bi paper handi, errotulkiak eta arbela	
<p>Bi taldetan banatuko dira partaideak eta talde bakoitza paper handi baten inguruan bilduko da. Talde bakoitzak kontzeptu bat izango du paper handiaren erdian; batzuk sexua eta besteek generoa. Talde bakoitzak, erdian dagoen kontzeptuaren inguruan hitz solteak idatziko ditu. Ordenarik gabe, burura etortzearekin batera idatzi egin beharko dute partaideek eta modu honetan, papera hitzez beteko da. Bost minutu inguruko tarte utzita, talde bakoitzak bere paper handia pasako dio beste taldeari, hitz gehiagorekin betetzeko eta horrela, partaide denak pasatuko dira bi kontzeptuetatik.</p> <p>Bi taldeak bukatuta, hitzen arteko lotura egiten hasiko gara. Marra batez lotuko ditugu harremana duten hitzak eta taldean adostuko dira lotura horiek. Denon artean, talde bakoitzeko paperean idatzitako hitzak eta loturak komentatuko ditugu. Horrez gain, zalantzak argitu eta galderak botako ditugu, eztabaida emateko. Eztabaida aurrera doan heinean, dinamizatzaileak arbelean idatziko ditu ondorio nagusiak eta bukatzeko denon artean irakurriko ditugu.</p>	
5. DEFINIZIOAK	IRAUPENA: 15 minutu
MATERIALA: papera eta boliak	
<p>Bakoitzak bere hitzekin paper batean bi hitz hauek definitu beharko ditu: Sexua / generoa. Ondoren, definizio denak irakurri eta denon artean definizio osatu bat sortuko da.</p>	
6. TERMOMETROA	IRAUPENA: 35 minutu
MATERIALA: pilota eta baieztapenak	
<p>Partaideak lerro batean kokatuko dira, ezker-eskuin gelako bi alde aukeratu eta horrela izendatuko dira: ADOS alde batera, EZ ADOS bestera. Dinamizatzaileak baieztapenak ozenki irakurri eta bakoitzaren adostasunaren arabera ezker-eskuin mugitu beharko dira. Baieztapen bakoitzaren amaieran, elkarri pilota pasaz, txanda hartuko dugu gure kokapena argudiatzeko. Modu honetan eztabaida txikiak sortuko dira eta ez bada horrela suertatzen, dinamizatzailea kontrako aldean kokatu eta honek eztabaida sortuko du.</p>	

Baieztapenak:

- Sexua kontzeptu biologikoa da
- Generoa kontzeptu biologikoa da.
- Bi kontzeptu hauek eraikuntza kulturalak dira
- Normalena bi sexu eta bi genero soilik existitzea dira.
- Sexua, pertsonak ar eta eme bezala bereizten dituen ezaugarri fisikoen arabera banaketa da
- Generoak jarrera jakin bat izatera behartzen gaitu, rol eta estereotipo konkretu batzuk atxikitzen zaizkigu gorputz biologiko baten edo beste baten arabera.

#### 7. SENTIMENDU ERRONDA

IRAUPENA: 10 minutu

Lehenengo saio honi bukaera emateko, egin denaren laburpen txiki bat egingo da, bertan ateratako ideia nagusiak azpimarratuz.

Bukatzeko, sentimendu erronda bat egingo da, bakoitza nola sentitu den besteekin elkarbanatuz ( nahi izanez gero).

#### BIGARREN SAIOA

IRAUPENA: hiru ordu

HELBURUA: sexualitate kontzeptuaren inguruan hausnartzea

#### 1. SARRERA

IRAUPENA: 10minutu

Bigarren saioaren nondik norakoak azaldu eta aurreko saioaren laburpen txiki bat egingo du dinamizatzailerak. Honekin batera, aurreko saiotik irakasleei zer gustatu zitzaien edo zer ondorioztatu zuten galdetuko die, egindakoa gogora ekartzeko. (10 min)

#### 2. ZEIN NAIZ?

IRAUPENA: 20 minutu

MATERIALA: arkatzak, paper zatiak eta zeloak

Partaide bakoitzak bere izena ipiniko du paper zati batean. Gero dinamizatzailleak denak nahastu eta bakoitzari paper bat emango dio eta hauek, ez dute paper horretan idatzita dagoena ikusi behar. Bakoitzak, zelo zati bat erabiliz, kopetan pegatu beharko du papera, idatzita dagoen aldea kanpora begira utziz. Behin denak papera kopetan pegatuta dutela, banaka bai edo ez erantzuna duten galderak egiten hasiko dira, kopetan duten izena asmatu arte. Galderak baiezkoak diren bitartean, txanda mantendu egingo da baina galdera bati ezezkoa emanaz gero, txanda ondokoari pasatuko zaio.

3. GEZURRAK EGI BIHURTU

IRAUPENA: 30 minutu

MATERIALA: esaldien lista

Irakasleei hiru taldetan banatzeko eskatuko zaie eta dinamizatzailleak orri bat emango dio talde bakoitzari. Bertan, orain dela gutxi hezkuntza sexuala eta sexualitatearen inguruko hainbat esaldi egongo dira idatzita eta irakasleek, esaldi horiekin ados dauden edo ez eta horren zergatia adierazi beharko dute. Talde bakoitzak, esaldi desberdinak izango ditu.

Esaldiak:

La educación sexual es corrupción de menores y pedofilia.

Con la educación sexual a nuestros hijos los adiestran ideológicamente y los sumergen en la promiscuidad sexual y en la falta de identidad sexual.

El programa *Skolae* enseña juegos eróticos a niños de 0 a 6 años.

Gurasoek erabaki beharko lukete haurrak hezkuntza sexuala lantzen den klaseetara joatea edo ez.

Seme-alabak gurasoenak dira.

Hezkuntza sexuala adoktrinamendua da.

Hezkuntza sexuala ez lantzean haurren eskubideak urratzen gabiltza.

Seme-alabak ez dira gurasoen jabetza.



Hezkuntza sexuala lantzeak onurak besterik ez ditu.Ondoren, denon artean komentatuko ditugu esaldi guztiak eta dinamizatzailleak honako galdera hauek egingo die irakasleei: Zer uste duzue dagoela esaldi guzti hauen oinarrian? Zer konponbide ikusten diozue egoera honi?

4. NOLA ULERTZEN DUZUE  
SEXUALITATEA? IRAUPENA: 10 minutu

MATERIALA: arkatzak eta paperak

Dinamizatzailleak partaide bakoitzari paper bat emango dio. Bertan, norberak sexualitatea nola ulertzen duen idatzi beharko du. Ondoren, papera tolestu eta bakoitzak berea gorde beharko du (gero berriz erabiliko dutela azalduko zaie).

5. ZER DA SEXUALITATEA? IRAUPENA: 20 MINUTU

MATERIALA: arbela

*Brain storming* bat egingo da sexualitate kontzeptuaren inguruan. Honekin batera, irakasle bakoitzari sexualitatea hitza entzun eta burura etorritako lehenengo gauza paper batean margotzeko eskatuko zaie. Gero, marrazki denak arbelean pegatu eta hauek behatuz eta *brain storming*-ari erreparatuz denon artean definitzen saiatuko gara. Honekin, sexualitate genital, sarketa eta orgasmotik haratago doan kontzeptu dela ohartzea nahi da.

6. SKOLAE IRAUPENA: 20 minutu

MATERIALA: testua

Behin sexualitate hitza definituta (aurreko dinamikan), bakoitzak Skolae programako testu hau irakurriko du, sexualitatea hobeto ulertze eta honekiko ikuspuntu zabal bat izate aldera.

#### HITZ EGIN DEZAGUN SEXUALITATEARI BURUZ

Oraindik ere, heziketa afektibo- sexualaz hitz egiteak zenbait erresistentzia sortzen ditu, ez bakarrik familien eta eskolaren aldetik, baizik baita gizartearen aldetik ere, agian, benetan esan nahi duenari buruz dugun ikuspegi oker eta murriztailearen ondorioz. Sexualitateari

buruz ari garenean, hainbat gauzari buruz ari gara: zer garen, nolakoak garen, zer sentitzen dugun, nola sentitzen garen, nola jartzen garen harremanetan besteekin, nola bizi garen eta nola adierazten dugun.

Sexualitatearen ezaugarri unibertsala da sexualitatea badela, hor dagoela, eta, beraz, gai horri heldu egin behar zaiola. Ezin dugu ulertu sexualitatea ikuspegi biologiko edo medikotik bakarrik, alderdi sozialari erreferentziarik egin gabe. Ezinezkoa da hori; izan ere, ikuspegi biologikotik bakarrik aztertuko bagenu, medikuntzaren bidez ebatziko genuke arazo edo zalantza oro, eta ez beste alor batzuetatik (soziologia, psikologia, heziketa...).

Gainera, ikuspegi mediko edo biologikotik bakarrik hitz egingo bagenu sexualitateari buruz, gai batzuei buruz bakarrik hitz egingo genuke (anatomia, genitalak, ugalketa, sexu-transmisiozko infekzioak...), eta albo batera utziko genituzke sexualitatearen alor pertsonala, harremanen alorra eta alor soziala.

Gaur egun, neskek eta mutilek parametro desberdinen bidez eraikitzen dute beren sexualitatea. Mutilen artean, onartuago dago harreman afektibo- sexualei buruz hitz egitea eta horrelako harremanak izatea; nesken artean, berriz, ezkutatu beharreko zerbait da oraindik, "lizuntzat" har ez ditzaten eta, ondorioz, posizio arriskutsu batean egon ez daitezen. Hortaz, mutilak eta sexualitatea positiboki baloratzen dira; neskak eta sexualitatea, aldiz, negatiboki.

Abiapuntutik bertatik, desberdintasun ikaragarria dago: mutilengandik sexualki aktiboak izatea espero da; hala ez badira, izen ona galduko dute haien pareko mutilen artean. Neskengandik, berriz, arlo sexuala isilpean gordetzea espero da; "genero-araua" bete ezean, izen ona galduko lukete. Baina, bien kasuan, desioaren orientazioa aurreikusitakoa izatea espero da: heterosexualitatea. Beste sexu-orientazio bat adieraztea ez da naturaltasunez ikusten oraindik, ez eta genero-identitate desberdina izatea ere. Pertsona transexualei buruz ari gara (*Skolae*, 2019).

Hau irakurri eta gero, hau komentatzeko tarte emango da. Hau da, irakasleak testuarekin ados dauden, ez dauden ados, horrela ikusten duten, zerbait aldatuko

luketen ... komentatzeko aukera izango dute. Gero, aurreko dinamikan egindako definizioa aldatzea nahi duten galdetuko zaie eta hala izanez gero, horretarako tartea utzi.

7. NOLA ULERTZEN DUZUE ORAIN SEXUALITATEA?

IRAUPENA: 5 minutu

Laugarren ariketan idatzitako berreskuratu, norberak berea berriz irakurri eta saioan ikusitako guztiarekin aldatetaren bat egin nahi duten galdetuko zaie. Altuan zer aldatzea erabaki duten azaldu gabe, bakoitzak bere erara sexualitatea definitzeko aukera izango du.

8. BUKAERA

IRAUPENA: 15 minutu

Bakoitzak bizkarrean folio bat pegatua eta rotulki bat izango du eskuan. Modu honetan, gainontzekoen bizkarrean beraiei buruzko pentsamendu positiboak idatzi beharko dituzte. Hau da, irakasle bezala, emakume bezala, ama bezala, lagun bezala, lankide bezala... dituen alderdi onak idatzi beharko dituzte. Horrela, saioa bukatzearekin batera, norberak mezu positibo asko jasoko ditu.

HIRUGARREN SAIOA

IRAUPENA: hiru ordu

HELBURUA: hezkuntza sexuala kontzeptuaren inguruan hausnartzea

1. SARRERA

IRAUPENA: 10minutu

Ongi etorria eman eta aurreko saiotik zer ondorio atera zituzten galdetuko zaie irakasleei, orain arte egindakoa gogoraraziz

2. ZUHAITZ ZURIA

IRAUPENA: 10minutu

Denok biribilean kokatuta, dinamizatzailleak bakoitzari gaiarekin zer ikusi duen hitz bat esango die, hiru edo lau pertsonari ezik. Hauei, zuhaitz zuria hitzak esango dizkie eta hauen zeregina, gainontzekoak, zuhaitz zuriak nortzuk diren ez ohartzea da. Modu honetan, banan- banan partaideak arestian esandako hitzarekin zer ikusi duen hitz bat esan beharko dute. Bitartean, zuhaitz zuriek, aurrekoek esandako hitzekin gaia zein

den pentsatu eta beraiek ere horren inguruko hitz bat esan beharko dute. Denok hitz bat esan eta gero, denon artean erabaki beharko da zuhaitz zuriak zeintzuk diren eta zuhaitz zuriak gaia zein zen asmatu beharko dute

3. ESPERIENTZIAK PARTEKATU	IRAUPENA: 30 minutu
-------------------------------	---------------------

MATERIALA: arbela

Irakasleak talde txikietan banatu eta dinamizatzailerak taldeko orri bat banatuko du. Jarraian, talde denei berdina eskatuko zaie, gurasoengandik edo familiarengandik jaso duten heziketa sexuala azaltzea. Hau bukatzean, atzeko aldean, eskolan zer hezkuntza sexual jaso zuten idazteko eskatuko zaie. Gero, idatzitakoa berriz irakurri eta hezkuntza sexual honek zer helburu izan zuen pentsatzeko eskatuko zaie.

Hau burutu eta gero, talde bakoitzeko bozeramaile batek, taldean idatzitakoa gainontzekoei azalduko die. Iritzi denak entzun eta gero, zera galdetuko die dinamizatzailerak:

Horrek dira guk haurrei transmititu nahi dizkiegun mezuak?

Hauek dira gure helburuak?

Horrela ez bada, zeintzuk izan daitezke kalitatezko hezkuntza sexualaren helburuak?

Dinamizatzailerak arbelean hitz egindakoa apuntatzen joango da.

4. IRAKASLE GUZTIAK HEZKUNTZA SEXUALAREN INGURUAN HITZ EGITEKO ETA HAU LANTZEKO KAPAZAK DIRA	IRAUPENA: 10 minutu
--	---------------------

MATERIALA: arkatzak eta paperak

Dinamizatzailerak, zera idatziko du arbelean: irakasle guztiak hezkuntza sexualaren inguruan hitz egiteko eta hau lantzeko kapazak dira. Ondoren, saio honetako helburuetako bat, esaldi hau egi bihurtzea dela adieraziko zaie eta horrekin batera, esaldi honekin ados dauden edo ez esan beharko dute, arrazoiak azalduz. Horretarako, norberaren esperientzia propioetik hitz egin beharko dute irakasleek. Honekin eztabaida txiki bat emango da eta denon artean ondorio bat aterako dute.

5. HAUR SEXUALITATEA	IRAUPENA: 30 MINUTU
----------------------	---------------------

MATERIALA: arbela

Honako galdera hauek egingo ditu dinamizatzailleak:

Zer desberdintasun dago haur sexualitatea eta helduon sexualitatearen artean?

Hezkuntza sexuala edo sexualitateari erreferentzia egiten dioten zer egoeratan aurkitu dezakegu gure burua deseroso hurrekin hitz egiterakoan?.

Galdera bakoitzaren ondoren, eztabaidarako tartea utziko du dinamizatzailleak eta arbelean esandakoa apuntatzen joango da. Modu honetan, irakasleak haur sexualitateak dituen ezaugarriei buruz hausnartu eta pixkanaka definitzen joango dira, gai honekiko norberaren ahulguneak identifikatzearekin batera. Identifikazio honek, praktikan izan ditzaketen egoerei aurre egiteko izango zaie baliagarri. Behin ahulgunean eta egoera konkretuak identifikatuta, denon artean nola jokatu genukeen zehazten saiatuko gara. Egoera asko irten ezean, dinamizatzailleak honako egoera hauek proposatuko ditu: biluztasuna, auto-estimulazioa, organo genitalekiko interesa, joko sexualak bai ikasleen artean eta bai irakasleekin ...

6. HAUR LANDU SEXUALITATEA?	HEZKUNTZAN DAITEKE	IRAUPENA: 20 minutu
-----------------------------------	-----------------------	---------------------

MATERIALA: testua

Dinamizatzailleak, "Haur hezkuntzako hurrekin sexualitatea lantzea garrantzitsua da? Zergatik?" galderak airera botako ditu eta honekin eztabaida txiki bat sortzea izango du helburu.

Jarraian, LAB sindikatuko sexu heziketari buruzko gidaren zati hau irakurriko dugu denon artean:

### **Zer izan beharko dut kontuan Haur Hezkuntzan?**

**Haur Hezkuntzan uste baino gehiago egin daiteke sexualitate osasuntsu bat lortzeko, izan ere, atxikimendua lantzea sexu heziketa egitea da.**

Eguneroko detaile txikien bidez haien bizipena asko alda daiteke; arauak dira horren adibide, izan ere, arauak jarri eta azaltzeko moduak eragin zuzena du bizipenetan; jeloskortasunaren kudeaketa izan

daiteke beste adibide bat, pertsona batekin baino gehiagorekin badute lotura afektiboa, errazagoa egingo zaielako emozio hauen bizipena zein kudeaketa. Haien jakin-minaren aurrean azaltzen dugun jarrerak ere asko eragingo du haien sexualitate eta garapen orokorrean, emaitza ez baita berdina izanen jakin-min hori geldiarazten badugu edota txalotu eta elikatzen badugu (baita gorputzaren ezagutzari edo besteekin harremanetan sartzeari dagokienean ere).

Lehen aipatu bezala, informazioa ez da nahikoa; ezinbestekoa da haurrei **eredu berri eta positiboa** eskaintzea. Horretan guk zeresan handia dugu. Bi txikik elkar ukitzen dutela ikusten badugu, esate baterako, bien arteko jolasa dela ulertu eta onartzea da gakoa. Helduon ikuspegitik begiratzen badugu, ordea, mamuak ikus ditzakegu ez dauden tokian, eta horiek gure esku-hartzean eragin dezakete. Gure esku dago, adibidez, masturbazioarena bezalako jarrerak intimitatearen edo debekuaren esparrura eramatea. Ez da gauza bera hori gaizki dagoela esatea, edo berez gaizki ez dagoen arren, beste toki intimoago batean egitea komeni dela adieraztea. Gure jarrerak erabateko eragina izango du haurrak gerora horren inguruan izango duen bizipenean.

**Haur Hezkuntzan garrantzia handia hartzen dute nortasun sexualak, desioaren orientazioak eta genero bakoitzaren rol bereizketak.**


Eskuratzen dituzten ezagutza berriak apal egokietan kokatzen joan daitezen bermatzea izango da gure eginkizunetako bat. Nortasuna eta orientazioa zer diren barneratzea eta -aniztasuna oinarri hartuta, nola ez- egungo gizartean indarrean dauden rola malguago bilakatzea ere gure lana izango da (Torregrosa, 2019;16).

Bukatzeko, honen inguruan hitz egiteko tarteak utziko zaie irakasleei

7. MATERIALAREN INGURUAN  
HAUSNARTU?

IRAUPENA: 40 minutu

Dinamizatzaileak ondorengo argazki hau erakutsi eta zera galdetuko die irakasleei:



Hezkuntza sexuala lantzeko material hau ezaguna egiten zaizue? Noizbait erabili duzue?

Eskolako materialak, haurren helduaroan gorputzaren onarpena oztopatzen duela esango zenukete? Zergatik?

Ze esparrutan eragin diezaioke pertsona bati bere gorputzarekin gustura ez badago?

Guri, gure gorputza maitatzen erakutsi digute?

Guk gure gorputza maite dugu?

Galdera hauen inguruan hausnartu eta gero, irakasleei honako bideo hau erakutsiko zaie:

<https://www.youtube.com/watch?v=2IKlpD37CPI> (Compunet Amigo, 2014).

Ondoren, dinamizatzailleak honako galdera hauek egingo dizkie: Zer iruditu zaizue? Nola lotzen duzue hezkuntza sexualitatearekin? Zer egin dezakegu guk honen aurrean?

Nola alda genezake ikasgeletan erabiltzen den material hau etorkizunean haur denek euren gorputza onar dezaten?

Galdera hauek erantzun eta ondorio bateratu batera irizten saiatuko gara (40 min).

8. AUTO ESTIMUA ZAINDU

IRAUPENA: 20 minutu

Aurreko dinamikarekin lotuta, ondorengo bideoa erakutsiko zaie irakasleei eta ondoren dinamizatazaileak galdera batzuk egingo dizkie irakasleei:

[https://www.youtube.com/watch?v=07d2dXHb94&list=PLTRSgIscM-UAev6D\\_q9F7-ip489JZTbfm](https://www.youtube.com/watch?v=07d2dXHb94&list=PLTRSgIscM-UAev6D_q9F7-ip489JZTbfm) (Southeastern Guide Dogs, 2018).

Zer ikusirik al du hezkuntza sexualarekin?

Nola eskaini diezaiekegu haurrei behar duten auto-estimua askatasunez hasteko?

9. SENTIMENDU RONDA

IRAUPENA: 10 minutu

Hirugarren saio honi bukaera emateko, egin denaren laburpen txiki bat egingo da, bertan ateratako ideia nagusiak azpimarratuz.

Bukatzeko, sentimendu erronda bat egingo da, bakoitza nola sentitu den besteekin elkarbanatuz ( nahi izanez gero).

LAUGARREN SAIOA

IRAUPENA: Bi ordu

HELBURUA: ikasgelan nola landu daiteken deskubritzea.

1. SARRERA

IRAUPENA: 10 minutu

Ongi etorria eman eta aurreko saiotik zer ondorio atera zituzten galdetuko zaie irakasleei, orain arte egindakoa gogoraraziz

2. IKASGELAN NOLA LANDU  
DEZAKEGU HEZKUNTZA  
SEXUALA?

IRAUPENA: ordu bat eta hogeita minutu

MATERIALA: orriak eta boligrafoak



Aurreko saioetan, sexualitatea eta hezkuntza sexuala definitu eta gero, irakasleak taldeetan bildu eta ikasgelan hezkuntza sexuala lantzeko zer gairi buruz hitz egingo zuten galdetuko zaie. Ondore, talde bakoitzeko bozeramaileak taldean hitz egin dena azaldu eta dinamizatzailerak arbelean idazten joango da. Modu honetan, ikasgeletan gaia lantzeko hainbat gai azalduko dira.

Jarraian, gai hauek banan-banan aztertu eta ia hau lantzeko baliabideak ezagutzen ditugun hitz egingo dugu. Horrela izanez gero, hauek elkarbanatzeko aukera izango dute. Baina gaia lantzeko materialik ez badute ezagutzen, denon artean hau nola sortu daitekeen pentsatuko dugu.

Honekin batera, gai desberdinak landu bitartean, dinamizatzailerak irakasleei haur bihurtzeko eskatu eta dinamika desberdinak egiteko eskatuko die. Besteak beste:

Gorputzak ezagutzeko, "MAITE ZAITUT" dinamika burutuko da:

Biribilean kokatuko dira denak, bat izan ezik, hau, erdian kokatuko da. Erdian dagoenak, esaldi bat esan beharko du, Maite zaitut hitzekin hasiz. Adibidez, maite zaitut emakumea zarelako, begi marroiak dituzulako, ile luzea daukazulako ... Orduan, ezaugarri hori duten pertsonak altxatu eta tokiz aldatu beharko dute. Bitartean, erdian dagoena beste baten tokian eseri beharko da, modu honetan, beste norbait geldituz erdian.

Plazera lantzeko, "MASAJE" bat ematea proposatuko zaie:

Horretarako, binaka jarri eta dinamizatzailerak animalia desberdinen pausuak imitatze eskatuko die irakasleei besteen bizkarrean. Adibidez, elefantea, bizkarretik gora doa, orain alde baterantz ... Gero bikotearen rola aldatuko dira, masajea denok jasoz.

Familia mota desberdinak lantzeko, "FAMILIA DESBERDINAK" dinamika burutuko da:

Orri bana banatuko zaio bakoitzari eta bakoitzak bere familia osatzen duten kideak marraztu beharko ditu. Gero, bakoitzak eginikoa denon aurrean azaldu beharko dute, familia mota desberdinak ezagutzeko.

Harremanak lantzeko, "KONFIANTZA" jolasa egingo da:

Irakasleak binaka jarriko dira. Irakasleak binaka jarri beharko dira, bata bestearen

atzean kokatuz. Aurrean dagoen irakasleak, eskuak aldeetara altxatu eta erortzen utziko da tronko bat izango balitz bezala. Bitartean, besteak hau eutsi beharko du hau erori ez dadin. Gero, rola aldatu egingo dituzte.

Emozioak lantzeko, "EMOZIOEN ILARA" dinamika burutuko da.

Partaideak ilaran bata bestearen atzean jarriko dira eta azkenak emozio bat keinuekin adierazi beharko dio aurrekoari (triste, pozik, urduri, lotsatuta...). Modu honetan, azkena dagoen pertsonatik hasita lehenengoa dagoen pertsonak mezua jaso arte. Azkenak ulertu edo iritsitako emozioa ozen esan beharko du asmatu duen jakiteko. Horrela haur bakoitzak emozio bat aukeratu eta transmitituko du.

Dinamika bukatzeko, dinamizatzailerak material hau elkarbanatuko du irakasleekin:

#### HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO LIBURUAK

- *Munstro arrosa* (Olga de Dios, Denonartean, 2016)
- *Ni un besito a la fuerza* (Marion Mebes, Maite canal editorial, 1994)
- *Neskak eta mutilak* (Aingeru Mayor eta Susana Monteagudo, LIT-ERA, 2016)
- *Ni Nerea naiz* (Nerea García. Bellatierra, 2019)
- *Jazz naiz* (Jessica Herthel, Jazz Jennings, Bellatierra, 2016)
- *Mari zipriztinek ez du zorioneko galeperrik nahi.* (Mirian Cameros Sierra Nunila Lopez Salamero, Txalaparta, 2009)
- *Eta zer?* Bilduma (Elkar)
- *Koloretako munstroa* (Anna Llenas Serra, 2015)
- *Aitor tiene dos mamás.* (Maria José Mendieta, Bellaterra, 2006)
- *No le cuentes cuentos* (Carlos de la Cruz eta Mario de la Cruz, CEAPA, 2011)

#### HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO

- Pirritx, Porrotx eta Marimototxen familien kartak (Katxiporreta. Elkar)
- Chrysallis material didaktikoak (Chrysallis Euskal Herria)

- *Emoziotegia* (Cristina Nuñez, Palabras Aladas, 2013)
- *Kilimak* (Nerea Sancho, Erein, 2007)
- *Kili kontuak* (Arrasateko Udala, 2010)
- *Zutani jolasa* (Nerea Mendizabal, 2019)

### 3. KILI KONTUAK

IRAUPENA: 15 minutu

MATERIAIALA: Kili kontuak liburua

Kili kontuak liburu sortako lehenengo liburua irakurriko die dinamizatzailerak irakasleei. Bertan, haurrekin sexualitateaz hitz egiteko 10 gomendio proposatzen dira eta horien inguruan hitz egiteko aukera izango dute.

### 4. BUKAERA

IRAUPENA: 10 minutu

Bizitako denaren inguruko laburpen txikitxo bat egingo da bertan ateratako ondorio nagusiak azpimarratuz eta baten batek hitz egitea nahi izanez gero tartea utziko zaio.

## II. ERANSKINA: Elkarrizketak

### EMAIZE

#### 1) Lantzen al da hezkuntza sexuala gaur egun? Ze esparrutan? Nola? Zer helbururekin?

Nahiz eta lege bat izan estatu mailan, gero, autonomia erkidego bakoitzak bere modura egiten du lan. EAEn ez dago ezer legerari dagokionez, hutsune bat dago. Orain dela hiru urte Javier Gomez Zapirain eta hezkuntza sailak programa bat egin zuten: Sexumuxu. Baina gaur egun ez dut ezagutzen proiektu hau erabiltzen duen inor.

Hala eta guztiz ere, orokorrean lantzen dela esango nuke edo geroz eta gehiago lantzen dela behintzat, nahiz eta ez den nahikoa.

Ez da soilik ikastetxeetan lantzen. Hau da, guregana hurbiltzen diren norbanako eta familiekin ere lantzen dela esan dezakegu. Baina hau

orokorrean, arazo edo egoera konkretu batzuek lantzeko helburuarekin izaten da.

## **2) Lantzen al da hezkuntza arautuan hezkuntza sexuala? Nola? Zertarako?**

Gehienetan, zentro bakoitzak erabakitzen du zer egin. Hau da, irakasleen interesen arabera, zuzendaritzaren arabera, gurasoen elkarteen arabera ... Askotan, arazo bat sortzen denean sortzen da interesa. Baina uste dut horrela ez garela oso urrutira helduko hau ez baita bidea. Hezkuntza sexuala maila desberdinetan lantzen saiatzen gara. Horrez gain, irakasle eta gurasoekin ere lantzen saiatzen gara, nahiz eta zaila egiten zaigun.

Gasteizko ikastetxeekin hogeita sei urte gabiltza lanean. Zer gertatzen da, DBH-n ikusten dela garrantzitsuena lantzea orokorrean adin honetan, jokabide arriskutsuak ikusten hasten direlako eta orduan esku-hartzeko beharra ikusten da.

## **3) Zer etapatarra dago nagusiki bideratua? Haur hezkuntza etapan lantzen al da?**

Gehien DBH-ko bigarren ziklorako jasotzen dugu eskaria. Gu beti ahalegintzen gara ezin dela hain berandurarte itxaron esaten. Hau da, arazoak sortu arte ez dela itxaron behar gaia lantzeko. Izan ere, hobeto da, sexualitatea modu positiboan lantzea eta hori lantzen hasteko garaia, haur hezkuntza etapa da.

Guk, hiru lau urte daramatzagu LH-ko azken zikloko ikasgeletan lantzen. Baina, hirugarren eta laugarren mailako irakasleekin saiatzen gara formakuntzak egiten, haiek hurrekin lantzeko.

Haur Hezkuntza etapan, orokorrean, gero eta gehiago lantzen dela esango nuke. Batez ere jatorria, hau da, nondik gatozen, aniztasun familiarra, gorputzaren edukiak ... Askotan gai hauek zeharka lantzen dira, adibidez, gorputz desberdinak agertzen diren fitxetan edo familiako argazkiak eramanten direnean ikasgelara ... Txokoen bidez ere, rolak lantzen dira, psikomotritzitatean ere norbere mugak deskubritzea lantzen da, jolas sinbolikoaren bitartez.

**4) Nola? Zer baliabide erabiltzen dira? Non eta noiz izaten da?**

Guk gure programazioak eta guk sortutako materialak erabiltzen ditugu. Dinamikak, bideoak, eztabaida taldeak ... gehienbat. Programa bat dugu garatuta mailaz maila eta bertan ze eduki landu nahi ditugun dugu zehaztuta. Hori dela eta edukien arabera material desberdina bilatzen eta erabiltzen dugu. Hemen garrantzitsuena zer lantzea nahi duzun zehaztea da horren arabera antolatzeko zure lana.

**5) Zer helbururekin lantzen da? Beste etapekin alderatuz helburu berarekin lantzen da?**

Hiru helburu nagusi ditugu. Carlos de la Cruz sexologoak idatzita dituen helburuak hain zuzen ere. Lehenengoa, bakoitzak bere burua ezagutzea emakume edo gizon den heinean, nola ezagutzen duen bere gorputza eta bere burua. Bigarrena, norberaren gorputza eta norbera dena onartzea eta azkena, zu zarena ezagututa eta onartuta, modu positiboan adieraztea, jokabide bidez.

Lehenengo helburuan zer lantzen dugun, ba zure gorputza nolakoa den, nolakoa diren neska gehienen gorputzak edo mutil gehienen gorputzak baina jakinda badagoela alua duten mutilak edo zakila duten neskak. Hau da, zu zarena onartzea.

Bigarren helburuari begira, desioaren orientabidea lantzen da, baina hau nagusiagoei dago zuzendua. Hortaz gain, rolak eta estereotipoak lantzen ditugu. Hirugarren helburuan, gainontzekoekin eta norbere buruarekin ditugun jarrera eta harremantzeko erak lantzen ditugu.

**6) Irakasleek hezkuntza sexualaren inguruko formakuntza dutela uste duzue?**

Ez. Zuek karreran landu duzue gai hau? Badituzue baliabideak gai hau ikasgeletan lantzeko? Hor duzu erantzuna.

**7) Ba al dago materialik haur hezkuntzako hurrekin hezkuntza sexuala lantzeko? Zein?**

Lehen esan bezala Haur Hezkuntzan lantzeko material asko dago. Haur Hezkuntzan hezkuntza sexuala lantzea zentzumenak, jatorria, familia motak eta harremanak besteak beste lantzea delako. Horregatik, irakasleek material asko dute ikasgeletan horrelako gaiak lantzeko. Horrez gain, Steilasek badu hezkuntza sexuala lantzeko materiala.

**8) Nortzuk ari dira/zarete sexualitatea lantzen hezkuntza? Zein erakunde, zentro edo taldetan zabilzate?**

Araban batez ere gu gabiltza. Gero, sexologo desberdinak dabilta hau lantzen baina ez elkarte edo zentro baten barruan, banakako bezala. Gipuzkoan adibidez, Arremanitz eta Lahia nahia. Estatu mailan sexologoek elkarte bat dago, AEPS. Hor, zentru eta elkarte desberdinak elkar ezagutzeko aukera izugarria daukagu. Orokorrean beste zentro batzuekin harremanean gaudela esan genezake.

**9) Nola ulertzen duzue zuek sexualitatea?**

Sexualitatea, bakoitzak bere modu propioan eraikitzen du. Mailaz maila doan prozesu bat da, bukaezina dena. Sexuazio prozesuko, maila bat identitate sexualarena da, emakume edo gizona izango zara zu nola sentitzen zarenaren arabera, baina ez dago loturik ez genitalekin eta ez rolekin.

Sexualitatea bizipenekin lotzen dugu. Hau da, ni emakumea izanda, nola ulertzen dudan nire burua, zer sentitzen dudan eta nola nagoen mundu honetan. Hemen, desioen orientabidea sartzan dela uste dugu.

**10) Nola bizi duzue sozialki eta mediatikoki azken aldian dagoen kontrako giroa?**

Alde batetik, gizartean zeuden ideia batzuk edo beldur puntu batzuk azaleratzen ari direla dut. Hau oso pertsonala da, baina esaten dituzten astakeri sinestezinak iruditzen zaizkit eta hor atzean beldur asko daudela pentsatzen dut.

Nire ustez, orain da gure aukera guk zer egiten dugun azaltzeko, baina jendeak badaki Vox-koek esaten dutena ez dugula egiten. Hezkuntza sexuala puri-purian dagoen gaia da orain honi esker. Baina uste dut, ez ditugula gure indarrak xahutu behar horrelako pertsonen erantzuten, guk gure bidea ez dugu

ahaztu behar. Gure jarrera, gaia lantzea izan behar da eta nahi duena gerturatuko da guk zer egiten dugun ikustera baina ez dut ikusten gure energia eta indarra horretan gastatu behar dugunik.

Gurasoen aldetik, informatuko balira, ziur gure helburuekin bat egingo luketela. Hau da, haurrak bere burua ezagutu eta onartzea nahiko lukete.

**11) Zergatik uste duzue dela garrantzitsua haurrek hezkuntza sexuala jasotzea?**

Norbere burua hobeto ezagutu eta aniztasuna onartzeko. Azken finean errespetuz jarduteko.

**12) Zein da zuen eskaintza edo zuen programa? (Ze etapatan egiten duzue lan? Zer eskaintzen duzue? Hurrekin bakarrik edo irakasleekin ere lantzen duzue hezkuntza sexuala? Nola? Zer material erabiltzen duzue?)**

Emaizen sexologia arlo desberdinetan lantzen dugu; hezkuntza, formakuntzan, aholkularitzan eta terapian. Hortaz gain, gurekin kontaktuan ipintzen diren ikastetxek eskatutakoaren arabera programazioak egiten ditugu, haurren adina eta lantzea nahi dutena kontuan izanik.

**13) (Nire egoera azaldu eta gero) Zer gomendatuko zenidakete?**

Nerea Sancho-k, "Kilimak" programa eratu du, baina gehienbat, lehen hezkuntzarako dago bideratua. CEAPA-k, badu gurasoei bideratutako material oso egokia, irakur dezakezu eta hori irakasleen perfilera egokitu.

**ALDARTE**

**1) Lantzen al da hezkuntza sexuala gaur egun? Ze esparrutan? Nola? Zer helburuekin?**

Bai, eskoletan edo curriculumean txertatuta dagoela ikusten da nahiz eta gutxiegi izan. Kontua da ze hezkuntza sexual mota gauzatzen den. Hori beste galdera bat izango litzateke.

Aldartek Araban egiten du lan, Eusko Jaurlaritzako zerbitzu bat da eta hemendik ere lau orduko saioak eskaintzen dira, baina ez da nahikoa ikasleekin hezkuntza sexuala lantzeko. Irakasleei ere eskaintzen zaie

formakuntza. Baina gai honi zenbateko garrantzia ematen zaion izango litzateke garrantzitsuena.

Gehienbat, ikastetxeetan egiten dugu lan baina beste eremu batzuk ere barnebiltzen ditugu. Hala nola, gure proiektuen artean kulturartekotasuna ere jorratzen dugunez, CEAR, gurutze gorria, ongi etorri errefuxatuak eta beste elkarte batzuekin gaude kontaktuan eta elkarlanean. Barakaldoko gazte aisialdi taldearekin eta aisialdi esparruan ere egiten dugu lan, gehien bat begiraleak formatze aldera.

Aldarteren helburua, hezkuntza sexuala ikuspuntu anitz eta zabalago batetik behatzea da. Hau da, hezkuntza sexuala ez dira soilik praktika sexualak edo gorputz jarrera jakin bat, baizik eta hortik haratago, bada harremantzeko modu bat, bada jendartean izateko modu bat, gure gorputzkerak ulertzeko eta gure gorputzarekin disfrutatze aukera bat. Hortik abiatuz milaka eredu, milaka era daude eta honek, sexu genero aniztasuneko alorrekin loturik dauden desira, arautuak... barnebiltzen ditu. Gai hau, jendartean eta pertsonengan garrantzia duen esparru bat da eta gure helburuetako bat, jendeak gaiaren inguruan gehiago jakitea izango litzateke erabakitze aukera gehiago izan dezaten. Funtsean, bakoitzak bere erabaki propioak hartzeko gaitasuna edukitzea.

## **2) Lantzen al da hezkuntza arautuan hezkuntza sexuala? Nola? Zertarako?**

Eskoletan lantzen dena oso urria da eta ez da nahikoa. Ikastetxeen eskaeraren arabera izaten da lanketa hau, baijan betiere ikastetxeak interesa izanez gero. Hezkuntza sexual hau, ikastetxeek egindako eskariaren arabera iraupena izaten dute. Normalean urteko bi edo lau orduko saioak izaten dira, eta hau ez da nahikoa.

Aldartetik ikusten duguna da, Aldarteri eskatutako tailerrak hezkuntza sexualari begira oso mugatuak direla. Urtean behin ematen diren bi orduko tailerretara mugatzen da hau, kenduta irakasleak urtean zehar ikasgeletan lantzen dutena. Hori guk ez dakigula baina ziurtasunez esan dezakegu ikasgela gehienetan hau ez dela gaia behar bezala lantzen. Hala eta guztiz ere, ikasgeletan hezkuntza sexuala lantzea irakasleen esku dagoen aukera pertsonala da.



Horrez gain, curriculumean txertatu beharko litzateke. Azken urteetan egiten ari den moduan genero ikuspegiarekin eta indarkeria ikuspuntuarekin, hezkuntza sexuala genero aniztasun hezkuntza edo agian hitz berriren bat asmatu beharko duzue hezkuntzan zabiltzaten pertsonak hori dena barnebiltzeko.

### **3) Zer etapatarago dago nagusiki bideratua? Haur hezkuntza etapan lantzen al da?**

Guk tailerrak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eman izan ditugu gehienbat baina Lehen Hezkuntzarako ere prestatu izan dugu saioen bat eta lanbide heziketatik ere jaso izan dugu eskariren abt. Hala eta guztiz ere, gure eskaintza ez dugu mugatzen etapa honetara, haur hezkuntzan ere landuko genuke baina ez dugu apenaz eskaerarik jaso.

Haur hezkuntzan lantzea garrantzitsua ikusten dut baina gaur egun ez dela egiten uste dut. Haurrek desira sexualik ez dutela esaten dute adituek baina adin horietan beste gorputzak esploratzen hasten dira. Gure (helduon) ikuspuntua edo jarrera, hau errespetuz gauzatzea izango litzateke. Haurrek esperimendazioa bultzatu behar dugu, baina beti ere errespetuz, adin hauetan batez ere jolastu dezatela eta helduok ezin ditugu jolas hauek mugatu. Izan ere, geroz eta askatasun handiagoarekin uzten badiegu haurrei jolasten, geroz eta aurreiritzi gutxiago eta jarrera positiboagoa izango dute.

### **4) Nola? Zer baliabide erabiltzen dira? Non eta noiz izaten da?**

Guk oraindik ez dugu lanik egin haur hezkuntzako etapan. Baina material dezente sortu dugu gainontzeko etapetako ikasleekin lan egiteko. Eskoletan burutzen ditugun saioak, hauek eskatutakoaren arabekoak izaten dira. Behin taldeak ezagututa eta adina kontuan izanda, gure saioak moldatu egiten ditugu batzuetan. Baina normalean lau orduko saioak izaten dira.

### **5) Zer helbururekin lantzen da? Beste etapekin alderatuz helburu berarekin lantzen da?**

Haur hezkuntza etapan aldiz, jolasen bitartez gorputzak ezagutzea, beraien artean errespetuz tratatzea eta mugak errespetatzen ikastea izango litzateke helburua.

**6) Irakasleek hezkuntza sexualaren inguruko formakuntza dutela uste duzue?**

Erantzuna baiezkoa izatea gustatuko litzaidake, baina errealitatean ez dut uste. Irakasle bakoitzak duen ikuspuntua edo izan duen formakuntza modu pertsonalean kontrolatzea oso zaia da. Hala eta guztiz ere, gaur egun egoera hobetzen doala uste dut. Etengabeko formakuntza derrigorrezkotzat ikusten dut eta batez ere gai honekin. Aditueri laguntza eskatu, Aldarte bezalako elkarteei adibidez eta informazioa sarezearen garrantzia azpimarratzea gustatuko litzaidake.

**7) Ba al dago materialik haur hezkuntzako hurrekin hezkuntza sexuala lantzeko? Zein?**

Ez dut ezagutzen material espezifikorik. Badakit STILAS-k edo Lab-ek material desberdina atera izan dutela honen inguruan.

**8) Nortzuk ari dira/zarete sexualitatea lantzen hezkuntza? Zein erakunde edo taldetan zabilzate?**

Edozein hezkuntza zentro edo elkartetik deitzen digutenean egiten dugu beraiekin lan eta guk, tailerrak proposatzen ditugu. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, Berdindu zerbitzuaren bitartez, horrelako tailerrak ere ematen ditu. Aldarte, Berdindu zerbitzuaren barruan dago. Azken honek, hainbat zerbitzu kudeatzen ditu. "Guztiok" elkarteak Bizkaian dihardu lanean eta gu Araban aritzen gara lanean eta elkarlan handia dago gure artean. Guztira hiru talde gaude Berdindurekin lanean; Gehitu, Aldarte eta Guztiok.

**9) Nola ulertzen duzue zuek sexualitatea?**

Era askean saiatzen gara ulertzen sexualitatea. Sexualitatea beti errespetutik tratatuta eta aniztasun dena barnebiltzen saiatzen. Gayle Rubin-en ikuspuntua ere asko gustatzen zaigu, honek baloratzen zuen *sexo bueno* eta *sexo malo*, nola hori ekidin daitekeen. Balantza hau parekatzen saiatu eta horrelako balore epaiketetan ez jausten. Eta honekin batera, inguruan zer arrisku dauden jakiten ere. Horregatik, Aldartetik, VIH edo ITS-ak ere lantzen ditugu eta horretan ere informatu, formatu, jakin ...

Azken finean, batez ere nahi beste gauza egin daitezke nahieran, baina badaude jakin behar diren minimo eta muga batzuk. Honekin batera, muga hauek norberak jarriko ditu bakoitzaren nahi gustu edo erabakitzen duenaren arabera.

**10) Nola bizi duzue sozialki eta mediatikoki azken aldian dagoen kontrako giroa?**

Lehenengoz, beraien ideia arkaikoei propaganda egin behar dietela uste dut. Baina ez dugu ahaztu behar, bakoitzak nahi duena egiteko zilegi dela, baldin eta zurea transmititzen duzun momentuan besteak ez dituzun zapaltzen. Adibidez, pentsatu dezakezu egokiena familia eredu tradizionala dela, ideia hau, zilegi irudituko litzaidake. Baina gaur egun beste errealitate eredu asko daudela izan behar da kontuan, familia eredu asko daudela eta nik uste hori ere errespetatzekoa dela.

Hala eta guztiz ere, gaur egun entzuten ari garen hezkuntza sexualaren inguruko iritziak ez dira berriak, orain dela askotik datoz. Baina, kontuan izan behar da ere, jendartean gaudela eta bakoitzak testuinguru desberdina duela

eta badirudi orain, aurreko mendeetara itzultzen ari garela. Hau kontuan izanda, horrelako ideiei planto egin behar zaiela uste dut, ez hezkuntzatik bakarrik jendarte guztitik jaso behar dute erantzuna. Eta erantzun hau, informazioa helaraztea izan daiteke.

Hau dena, hezkuntza pribatuko ikastetxeak kenduta, hauek nahi dutena hautatzeko eskubidea dutelako. Baina arlo publikoari begira, gaur egun sozialki ikusten ez diren ideia arkaiko hauek ez ditugu txertatzen utzi behar. Azkenean, ideia hauek gizartean egoten jarraituko dute baina ez arlo publikoan, pribatuan baizik.

Penagarria eta gogorra da horrelako argudio zapaltzaileak entzutearena baina nik uste ere, horrelako gauzei kasu larregi egiten zaiela. Izan ere, oso gai mediatikoak izaten ari dira baina hauek ez dutela eduki askorik uste dut. Adibidez, pin-parental edo HazteOireko busa oso mediatikoak izaten ari dira baina horrek praktikan ez duela eraginik uste dut, mediatikoak dira soilik.

**11) Zergatik uste duzue dela garrantzitsua haurrek hezkuntza sexuala jasotzea?**

Jaiotzen garenetik gure gorputza sexuala delako. Horren aldetik ere gaur egun, jorratzen den bikotasuna apurtzera begira oso garrantzitsua ikusten dut. Hau da, sexualitatea bizitzeko modu asko daudelako eta denak deskubritzeko da garrantzitsua haurrek hezkuntza sexuala jasotzea. Izan ere, ahalik eta lasterren ikasi eta jakin gerora aurreiritzi gutxiago izango dituzte haurrek. Eta kasu gehienetan haurrak gu baino aurreratuago daude, helduak aurreiritzi asko ditugulako eta haurrek era natural eta osasuntsuan ikasten dutelako. Dena onartzeko gaitasun handia dute. Hezkuntza honek jarraikortasun bat izan behar du eta irakasleek ardura ez ezik gurasoen ardura ere bada. LGBTBI fobia murrizte aldera oso ona.

**12) Zein da zuen eskaintza edo zuen programa? (Ze etapatan egiten duzue lan? Zer eskaintzen duzue? Haurrekin bakarrik edo irakasleekin ere lantzen duzue hezkuntza sexuala? Nola? Zer material erabiltzen duzue?)**

Denetarik. Lehendabizi arreta eskaintzen dugu. Hau, era desberdinean egiten dugu. Elkar laguntza taldeak ditugu eta esparru psikosoziala lantzen dugu talde hauetan. Batez ere sozializazioa eta elkar ezagutza, gazteekin eta

helduekin. Orain momentuan zazpi elkar laguntza talde lantzen ari gara. Bertan eremu edo espazio batzuk sortzen dira, berdinekin harremantzeko eta sozialazioan laguntzeko, autoestimua eta gatazken kudeaketa landu, etxetik irtetea ahalbidetu, beren egoera azaltzeko aukera eman... eskaintzen diegu parteideei. Hortaz gain, laguntza legal eta psikologoa ere eskaintzen dugu.

Gero, ikastetxeetatik eskaera jasotzen dugunean, eskakizun horri erantzuteko tailerrak prestatzen ditugu. Beti ere zentroak nahi dutenaren arabera, egoerara moldatzen gara.

### **13) (Nire egoera azaldu eta gero) Zer gomendatuko zenidakete?**

Atera berri dugun sexu- genero aniztasunetik eskubide ez normatiboak eraikitzen gida araka dezakezu. Hemen, material pilo bat aurkituko duzu eta bertan oinarritutako unitate didaktiko bat sortu genuen. Hau, gure web orrian aurki dezakezu.

## **URTXINTXA**

### **1) Lantzen al da hezkuntza sexuala gaur egun? Ze esparrutan? Nola? Zer helbururekin?**

Ez gara ausartzen esatera ez denik lantzen saiakera egiten delako, gu deitzen gaituzte. Intentzioa badagoela ikusten dugu baina zer gertatzen da intentzio horren fokoa ikasleengan jartzen dela. Hau da, hezitzaileek formakuntza elkarbizitzaren inguruan, sexualitatearen inguruan, genero aniztasunaren inguruan ... eskatzen dute baina ikasleekin lantzeko.

Guri asko kostatzen zaigu hezkuntza sexuala hezkuntza komunitate gabe nola landu daitekeen irudikatzea. Intentzioa, asmoa, gogoia eta kezka sortua dagoela uste dugu, baina tabu pilo bat daude oraindik. Jendeari asko kostatzen zaio euren burua zalantzan jartzea edo horri buruz hausnartzea. Intentzioa ona da baina traba gehiegi daude norberaren deseraikuntza handia eskatzen duelako.

Hezkuntza ez formalean ere lantzen da, baina ez haurrekin begiraleekin baizik.

## **2) Lantzen al da hezkuntza arautuan hezkuntza sexuala? Nola? Zertarako?**

Eusko Jaurlaritzatik zerbitzu konkretu batzuk ari dira eskaintzen. Ikastetxeek nahia, indarra eta beharra badute bertara jotzeko aukera eskainiz. Zerbitzu honetan, saio konkretu batzuk ematen dira, ordu konkretu batzuk eta honekin gaia zeharka lantzea lortzen da. Baina ez da nahikoa. Izan ere, zer gertatzen guk esku-hartzen ez dugun ikasgelako gainontzeko orduetan?

Proposamena urte osoan lantzekoa izan beharko litzateke eta curriculumean ganoraz txertatuta egotea. Oraindik ez gara puntu horretara heldu eta gaur egun lantzen bada, biologia ikuspuntutik lantzen da eta oso ikuspuntu tradizionaletik. Funtsean, gakoa hezkuntza komunitatea osotasunean formatu beharko litzatekeela uste dugu eta ez bakarrik haur edo gazteak.

## **3) Zer etapataro dago nagusiki bideratua? Haur hezkuntza etapan lantzen al da?**

Gure gogo aurrean, haur hezkuntzara bideratutako materiala sortzea zen, baina aurreratu egin zaizkigu eta haur hezkuntzatik eskaera bat izan dugu jada. Hau, oso kontrobertitua iruditzen zaigu, nahiz eta beharrezkoa ikusten dugun. Izan ere, gure nahia, haurrei taburik gabe hitz egitea izango litzateke baina irakasle edo gurasoek ulertuko lukete? Ulertuko litzateke, haurrekin horrela hitz egin beharko genukeela? Gure esku-hartzea oso murrizta da baina ikasturte guztian zehar horrela ez bazaie hitz egiten haurrei, nola lortuko dugu gure helburua? Mezu oso kontraesankorrak helarazten diegu askotan haurrei. Ulertzen duguna da, Haur Hezkuntzan gauzak transbertsalak izan behar direla eta ezin garela mezu kontrajarrietan erori.

Baina guk batez ere Lehen Hezkuntzako hirugarren mailatik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila edo batxillergoko ikasleekin egiten dugu lan. Eta gutxiago baina lanbide heziketako ikasleekin ere egiten dugu lan. Hau da, helduagoekin, gehienbat gaiaren inguruko hausnarketa egite aldera, edo kontzeptu batzuei izena jartzeko gai direnean.

Lehen Hezkuntzan behar bat ikusten hasten direnean ikastetxeetan, lantzen dugu gaia gehienbat baina ikastetxearen, familiaren edo irakasleen ikuspegiaren arabera "handicap"-ak izaten ditugu. Horregatik, Haur Hezkuntzara egokitzen garenean, gure morala eta besteen morala baloratu behar da eta hor, muga eta kontraesan propioekin aurkitzen gara.

Hurrei taburik gabe hasten bagara berbetan guk nahi bezala, gero beste eremu batzuetan hau mugatzen bada haurrak nahastu eta mezu kontrajarriak jasotzen dituzte. Naturaltasun prozesu bat behar da hurrekin hezkuntza sexuala lantzeko gerora tabuak ekidite aldera.

#### **4) Nola? Zer baliabide erabiltzen dira? Non eta noiz izaten da?**

Normalean proiektuak prestatuak ditugu baina eskariaren arabera berriak sortzen joaten gara ere, testuingurura egokituz. Ikasleekin burutzen ditugun saioak, ikastetxeek eskatutakoaren arabekoak ere izaten dira. Normalean lau edo sei orduko saioak.

#### **5) Zer helbururekin lantzen da? Beste etapekin alderatuz helburu berarekin lantzen da?**

Orokorrean helburua pertsona kritiko, autonomo eta askoak sortzea izaten da. Gero, etapa edo errealitate desberdinen arabera beste helburu batzuekin sartzten gara. Ikastetxearen arabera ordu kopuru bat eskatzen digutenez eta hauek oso mugatuak izaten direnez, zalantzarako guneak sortzea gustatzen zaigu. Hau da, ikasleei atek irekitzea eta hausnartzera eramatea izango litzateke. Gehienetan, saioak bukatzen direnean, hasieran baino zalantza gehiagorekin gelditzen direla uste dugu. Izan ere, zalantzan jartzen baduzu, bi sexu daudela, hau guztia eraikuntza kultural bat dela eta pertsona nahi haina sexualitate egon daitezkeela, eta "flipatzen" dute.

Haur hezkuntzan, ikastetxearen arabera helburu bat edo beste izaten da. Guk gure helburua daukagu baina bat egin behar dute ikastetxeenarekin. Haur hezkuntzan mugitzen ari den korrante pedagogikoak kontuan izanda, gorputza ere eremu aske bat izan behar dela eramaten gaitu pentsatzera. Orduan, pentsatu nahi dugu pedagogia hauek aurrera eramateak hezkuntza sexuala horrela lantzea eramango gaituela. Azken finean, mugimendu askea sexu hezkuntza da, gainontzekoen gorputza errespetatzearekin batera. Normalean Haur Hezkuntzan ez da hau sexu hezkuntza bezala ulertzen eta uste dugu hori dela bidea, gorputzen errespetua, plazerraren bizipena eta bestearekiko errespetua eta mugak jartzen jakitea. Baina oraindik urruti ikusten dugu kontu hau.

**6) Irakasleek hezkuntza sexualaren inguruko formakuntza dutela uste duzue?**

Ez. Uste dugu, tabu eta beldur askorekin aurkitzen garela. Irakasleek askotan eurak formatzeko dituzten orduan ez dituzte gozamenerako orduak bezala ikusten, baizik eta egin behar den zerbait bezala ulertzen dute.

**7) Ba al dago materialik haur hezkuntzako hurrekin hezkuntza sexuala lantzeko? Zein?**

Lehen aipatu bezala gu orain ari gara lantzen lehenengoz Haur Hezkuntzarako materiala.

**8) Nortzuk ari dira/zarete sexualitatea lantzen hezkuntza? Zein erakunde edo taldetan zabilzate?**

Pila bat, Arremanitz, Guztiok, Emagin, Euskal Herriko sexu heziketako elkarteak, Berdindu eta gero, ikastetxeetan sexu heziketan bakarrik zentratzen diren beste pilo bat elkarte daude.

Guk batez ere herri mugimendutik, talde feministekin egiten dugu lan baina honetan gabiltzan elkarteak saretuak gaude eta elkarlan handia dago gure artean.

**9) Nola ulertzen duzue zuek sexualitatea?**

Guretzako sexualitatea gure gorputza bizitzeko dugun modua, gure identitatea, besteekin harremantzeko modua eta mundua ulertzeko modu bat da. Sexualitateak mundua era batean ulertzea ahalbidetzen digu. Bizipen multzo bat ere bada. Konplexutasun asko dituen hitz bat da baina sinplea da aldi berean definitzen. Hala eta guztiz ere, etengabe gabiltzan definizio hau hedatzen edo eraikitzen gauza berriak ikasten gabiltzan heinean. Ez da kontzeptu finko bat, denbora guztian garatzen dagoen gauza bat da, aldakorra eta dena aberasten duena.

Urtxintxatik bultzatzen dugun ikuspegia sexualitatea anitza dela da, anitza esaten dugunean pertsona beste sexualitate mota daudela esan nahi dugu.



**10) Nola bizi duzue sozialki eta mediatikoki azken aldian dagoen kontrako giroa?**

Ezjakintasunak eta beldurrek eragiten duten gauzak direla uste dut. Gure errealtatea da, pin-parental deitzen diogu baina ikastetxe askotan ikusi izan dugu jarrera hau. Gai konkretu batez hitz egitera joaten garenean eta mugatu egiten gaituztenean esaterako, hau da, sexualitateaz hitz egin beharrean afektibitateaz hitz egitea eskatzen digutenean adibidez. Hori hein batean pin parental delako ere bada. Erresistentzia pila bat aurkitu ditugu ikastetxeetan.

Urtxintxa kide bezala ez gaude kezkatuta, beti egon delako jarrera edo erresistentzia hau. Guk uste dugu ikusgarritasun bat esleitzen zaiola eskumako indar edo ideia horri baina beldurrak eragindakoa dela, feminismoak gaur egun ere indarrean dagoelako eta geroz eta gehiago entzuten delako. Horregatik, hau da beraien erantzuna.

**11) Zergatik uste duzue dela garrantzitsua hurrek hezkuntza sexuala jasotzea?**

Garrantzitsua da, hezkuntza sexuala elkarbizitzarako eta aniztasuna ulertzeko. Norberak ez badu bere gorputza askatasunez bizitzen ez diegu besteei askatasunez bizitzen utziko eta botere harreman oso biolentoetan biziko gara denbora guztian. Kapitalismorako eta produktibitateko pertsonak sortzen dituzten sistemak, horregatik, baloreak oinarrian ipini behar ditugu, anitzak garelako ulertzeko. Hezkuntza sexuala, oinarritzakoa da, bizitzarako gauza bat. Bizitzen ikasteko eta ez izateko kalean dabilten beste "monigote" bat bezalakoa.

**12) Zein da zuen eskaintza edo zuen programa? (Ze etapatan egiten duzue lan? Zer eskaintzen duzue? Hurrekin bakarrik edo irakasleekin ere lantzen duzue hezkuntza sexuala? Nola? Zer material erabiltzen duzue?)**

Batez ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleekin lantzeko proiektu bat bezala sortu zen baina hau eraldatzen joan da, gehitzen joan gara eta mailaz mailako proiektu sortu dugu. Mailaren arabera gauza bat edo beste lantzen da. Oinarrian beti dago hezkidetzak eta batez ere genero indarkeriaren prebentzioa. Horretan zentratzen gara gehienbat ikasleekin.

Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailan bizikidetza eta elkarbizitza lantzen da, ezkutuko lanak bizibilizatzen dira, etapa bakoitzari egokitzen gara. Adin honetan etxean laguntzeko eta harremanak lantzeko aukera dute. Bosgarren mailan, bizikidetza lantzen da baina indarkeriaren ikuspuntutik, harreman afektibo sexualak hasten dira lantzen. DBH lehenengo mailan, indarkeria desmontatzen hasten gara, bigarren mailan berriro sexualitatea eta maitasun erromantikoa lantzen hasten gara. DBH hirugarren mailan berriz ere indarkeriaren inguruan lan egiten dugu baina beste perspektiba batetik, bizipenetatik. Laugarren mailan lanbide orientazio ez-sexista edo autodefentsa feminista eta maskulinitatearen oinarriak. Beti ere ikastetxeen nahi edo beharrak errespetatuz. Batxilergoan ere, autodefentsa feminista eta maskulinitatearen eredu hegemonikoaren hausnarketa eta eredu berrien inguruko hausnarketa.

Lanbide heziketan oso maskulinizatutako eta feminizatutako testuinguruekin aurkitzen gara gehienbat eta errealitatearen eta beharretara arabera moldatzen ditugu gure saioak. Horrez gain, irakasle, familiekin edo jangelako langilearekin, hezkuntza komunitateko beste espektro horrekin ere egiten dugu lan hauek eskatzen digutenaren arabera. Batik bat balioetan oinarritutako heziketa, hezkidetzak ere asko eskatzen digute, sexu genero sistema ... apur bat justifikatiboa bihurtzen da batzuetan.

Trebakuntzak ere eskaintzen ditugu, orain hezkidetzan aditua ikastaroa eskaintzen ari gara eta bertan sexualitatea ere lantzen dugu. Urtez urte trebakuntzak aldatzen joaten dira.

### **13) (Nire egoera azaldu eta gero) Zer gomendatuko zenidakete?**

Irakasleekin lan egitea oso inpaktantea izan daiteke. Hau da, irakasleek oso arrotz ikusten dute askotan eurak baino gazteagoa den pertsona bat joatea zerbait azaltzera edo gauza bat zelan egin behar den erakustera. Eta gainera sexu heziketa bezalako gai bat lantzeko erresistentzia asko sor daitezke, komenigarria izango litzateke aurretik hauek ezagutzea. Hala eta guztiz ere, epaitua izateko erraza da.

Garrantzitsuena beharrak identifikatzea da. Adibidez inkesta txiki bat pasa ahal diezu irakasleei eta inkesta horren arabera saioak presta ditzakezu eta

saioak horren arabera egituratu ahal dituzu. Hezkidetzatik hasi zaitezke eta sexualitatean sakondu dezakezu. Materiala eskaini.

## **ARREMANITZ**

### **1) Lantzen al da hezkuntza sexuala gaur egun? Ze esparrutan? Nola? Zer helbururekin?**

Hezkuntza sexuala edo sexuen hezkuntza izen desberdinak hartzen ditu segun eta zer ikuspuntutatik lantzen den gaia. Azkenaldi honetan nik sexudunen hezkuntza deitu nahiko nioke egia esan.

Esparru desberdinetan lantzen da, familiekin, profesionalekin (medikuntzan, erizaintzan ... ), zaharrekin, helduekin, gazteen artean ere lantzen da baino ez dena egiten da, modu sistematiko batean landu. Hau da, ez dago hezkuntza bat erregulartasun finko batekin egiten dena. Gauzak oso espontaneoki egiten dira beharra sortu edo urgentzi bat dagoenean esku-hartzen da normalean. Horregatik, guk aurkitzen dugun zailtasuna urgentziak ezin direla landu da, oinarririk ez badago.

### **2) Lantzen al da hezkuntza arautuan hezkuntza sexuala? Nola? Zertarako?**

Sexuen hezkuntza derrigorrezko eduki bat da orain dela gutxienez hogeita bost urte gutxi gora behera. Ez dakit legalki non dagoen abiapuntua baina derrigorra da Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan. Gaur egun hori arautzen duena, Heziberri 2020 izeneko txostena da eta hor bertan aurkitu daitezkeen ataletan ikus daiteke zein adinetan landu behar den zer eduki eta gainera zein ikasgairen barruan.

Orduan, hezkuntza arautua legalki horrela izanda, egin diren ikerketen arabera, batez ere Eusko Jaurlaritzatik bideratu diren ikerketetan, ikusi da, ez dela benetan hezkuntza hau bermatzen. Ikastetxe askotan azken momenturako usten dutela, gero ekainean ez dutela izaten denborarik, irakaslegoa ez dagoela prest edo ematen duten bertsioa oso fokalizatuta dagoela ugalketari begira eta ez dagoela inongo testuingururik. Eta testuingururik gabe erreprodukzionista den eredu bat erreproduzitzen da. Hau da, koitozentrista, ugalketara bideratua, gizon eta emakumeen artekoa eta oso oso mugatua. Bai egiten dena hainbat herritan, gure kasuan Hernanin

esaterako, modu sistematiko batean lantzea da. Hau da, udalak beregain hartzen du ardura hori eta azpikontraten bitartez, sexologo edo hezitzaile talde batek, ikasturte guztietan lantzen da. Adibidez, Lehen Hezkuntzako laugarren mailatik hasita Batxilergoraino, urtero lau- sei ordu eskaini horretara. Horrela behintzat, modu integral batean dago enfokatuta.

### **3) Zer etapataro dago nagusiki bideratua? Haur hezkuntza etapan lantzen al da?**

Berez, lantzen da baina irakasleak ez dira konturatzen zertan ari diren. Adibidez Haur Hezkuntzan, bost zentzumenak lantzen ari diren bitartean, badaude lantzen sexu hezkuntza. Hau da, beraien sexualtasunaren oinarria ezagutzen ari dira. Baina irakasleak ez da jabetzen horrek etorkizunean izan dezakeen eraginean, oinarri batzuk finkatuak izatea oso garrantzitsua da. Baina batez ere, guk Derrigorrezko Bigarren hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako azken etapan egiten dugu lan.

### **4) Nola? Zer baliabide erabiltzen dira? Non eta noiz izaten da?**

Baliabideak askotan pertsonalak dira. Hemen azpimarratzea gustatuko litzaidake, irakaslearekin lan egiten dugunean, adierazi eta argi utzi behar dugula zein den euren papera. Ez dela emakume edo gizon gisa eredugarriak izatea, baizik eta, haiek ahalbidetzea aniztasuna ikustarazten haurrei. Hau da, adibidez, ikasle batek irakasle bati galdetzen badi, “zuk noiz egin duzu txortan azkeneko aldiz?” , irakasleak apuro horretan beharbada informazio pertsonala eskainiko dio irakasleari. Eta haurrak momentu horretan ez du behar jakitea irakasleak noiz egin duen txortan eta gainera ze frekuentziarekin, haurrak behar duena jakitea da jendeak noiz egiten duen, batzuk askotan egiten dutela, beste batzuk gutxitan, beste batzuei ez zaiela gustatzen, besteei asko gustatzen zaiela, zer modu dauden egiteko; besarkatzea, muxukatzea, sarketak ...

Orduan irakasleek galdera “inkomodo” horiek aprobetxatu beharko litzukete, aniztasunari leku egiteko, zer posibilitate dauden kontatzeko.

Hortaz gain, liburuak erabiltzen dira batzuetan. Badago liburu bat giza zientziak edo ingurugiroari buruz eta errebisatu izan dudanean, ugalketari zuzendua egoteaz gain, bertan aurki daitekeen informazio guztia ez da

zuzena. Anatomia atalean ere, zati batzuk nahiko esanguratsuak dira, batez ere, emakumeenak falta direlako. Orduan, baliabideak batez ere, irakasle bakoitzarenak dira.

Guk eskoletan burutzen ditugun saioetan dinamika eta jolas desberdinak egiten ditugu. Hauek, ikasleak orain arte ikasitakoarekin apurtu eta zenbati kontzeptu zalantzan jartzea nahi izaten dugu.

**5) Zer helbururekin lantzen da? Beste etapekin alderatuz helburu berarekin lantzen da?**

Helburu ofiziala, legea betetzea da, bertan agertzen diren edukiak betetzea. Helburu ez ofizialak aldiz, egoera “inkomodoak” ebaztea ikastetxearen barruan izan litezke. Berez, afektibitateari lotuta egon beharko lukete baina nahiko hankamotz gelditzen gara orokorrean.

**6) Irakasleek hezkuntza sexualaren inguruko formakuntza dutela uste duzue?**

Uste dut ez dutela nahikoa formakuntza jasotzen. Irakasle-eskola eskolan, EHU-ko eskolan, sexualitatearen gaia sakonki lantzen zen eta nik dakidabez azkeneko urteetan ez. Sexu hezkuntzara bideratutako ikasgai bat lantzea unibertsitatean interesgarria irudituko litzaidake.

**7) Ba al dago materialik haur hezkuntzako hurrekin hezkuntza sexuala lantzeko? Zein?**

Materialak, alde batetik material ofizialak daude, oinarrizkoenak, zentzumenak, harremanak, ezagunak edo lagunak horrelako gaiak lantzeko eta gero, ofizialak ez direnak. Nik “Kilimak” eta “Taupadak” liburuak idatzi nituen. “Kilimak” liburua Haur Hezkuntzara bideratua dago eta nahi duenak erabil dezake. Bestela badaude, beste hizkuntzetan hainbat material, baina oso zaharkituak daude gehienak. Gero, beste material batzuk aurki daitezke, panfleto eran esaterako. Baina batzuetan eduki aldetik oso desegokiak iruditzen zaizkit eta moralitatearen aterpean idatziak daudela.

**8) Nortzuk ari dira/zarete sexualitatea lantzen hezkuntza? Zein erakunde edo taldetan zabilzate?**

Gure kasuan, ikastetxe desberdinetan egiten dugu lan, batez ere Hernaniko ikastetxe guztietako proiektua gure gain dauzkagu eta gero beste talde potente batzuk ere badaude, adibidez Arremanak. Guzitz konfiantzazkoak dira.

**9) Nola ulertzen duzue zuek sexualitatea?**

Landu behar den gai bat bezala ulertzen dugu. Zentrala. Hau da, bizirik dagoen pertsona orok bere bizitzan euskarri bat du eta euskarri hori sexuduna da eta landu egin behar da. Ez zaio espontaneitateari leku utzi behar. Izan ere, gizarteak egiten duena mugak jarri, estereotipatu eta mitoetan oinarritzea da. Orokorrean jendeak daukan beldurra, normala ez izatea da. Sexualitatearen ezaugarri naturalena edo ezinbestekoena da, normaltasuna ez dela existitzen, hau da, denak desberdinak garela. Hor aurkitzen dugu gizakiok dugun oztopo handiena. Normala sentitu nahi dugulako baina ezin gara normalak izan ez delako existitzen posibilitate hori. Batez ere, hau lortzeko, norberak bere burua mugatu egin behar duelako. Eta beste alde batetik gizarteak presionatu egiten gaitu, modu zehatz batera bizitzeko, adierazteko eta harremantzeko.

**10) Nola bizi duzue sozialki eta mediatikoki azken aldian dagoen kontrako giroa?**

Pertsonalki, gaztekeraz badago esaldi bat, "ladran, luego cabalgamos" deritzona. Hau da, kontrako giroa baldin badago, aurreratzen ari garenaren seinale dela uste dut. Beste adibide bat jarriko dizut, duela urte dezente, iritsi zen momentu bat, non elizaren inguruko jendea manifestazio batera joan zen. Eta nire lagun batek, sexologo, okupa eta kale giroan oso formatua zenak, esan zuen, "behingoz, beraiek dira kalera zerbait aldarrikatzera irteten direnak, gu gaude gure lekuan".

Hau ikusita, nire irakurketa momentu honetan, aurrerantz goazela da, bestela ez lirateke zaunkaka hasiko. Izan ere, sexu hezkuntzaren, sexualitatearen eta sexu askearen kontrako aldarrikapen hauek oinarririk ez dutela uste dut.

**11) Zergatik uste duzue dela garrantzitsua hurrek hezkuntza sexuala jasotzea?**

Kontra-galdera bat egingo dizut, zergatik beste ikasgaiak ez ditu inork zalantzan jartzen? Zergatik uste duzu dela garrantzitsua matematikak ikastea? Edo zergatik uste duzu dela garrantzitsua soinketa egitea?

Hor dago koska. Zergatik ez dugu egin orain arte? Zergatik ez dugu barneratu?

Europako beste herrialdeekin alderatuz, hemen frankismoagatik dena ari gara hogei edo hogeita hamar urte beranduago egiten eta dena apur bat "txapuzeroago" (gauza batzuetan).

**12) Zein da zuen eskaintza edo zuen programa? (Ze etapatan egiten duzue lan? Zer eskaintzen duzue? Hurrekin bakarrik edo irakasleekin ere lantzen duzue hezkuntza sexuala? Nola? Zer material erabiltzen duzue?)**

Laburbilduz, eremu desberdinetan egiten dugu lan. Adibidez, sexu hezkuntza, adin desberdinetan hezkuntza formalean eta ez formalean baita ere egiten dugu. Nagusi, heldu, haur, guraso eta profesionentzat egiten dugu lan. Prentsan ere kolaborazioak egiten ditugu eta terapia sexuala eskaintzen dugu. Hau da, sexu eta bikote terapia edo sexu eta bikote aholkularitza.

**13) (Nire egoera azaldu eta gero) Zer gomendatuko zenidakete?**

Nik gomendatzen dizutena, irakasle horien ezaugarriak kontuan edukita sortzea saioa. Horretarako, eztabaida taldeak bezalako harramintak oso egokiak dira.

**GUZTIOK**

**1) Lantzen al da hezkuntza sexuala gaur egun? Ze esparrutan? Nola? Zer helbururekin?**

Bai, lantzen da. Egia da, sexu hezitzaileok galdera hau erabiltzen dugula, galdera tranpa moduan. Orduan, normalean ezetza da erantzuna. Baina lantzen da, nahita zein nahigabe. Hau da, modu sistematiko batean egin daiteke, hau lantzeko ordu kopuru bat erabil daiteke, non garrantzia ematen diogun lan honi. Edo, lantzen ez dugula pentsatzen landu daiteke. Hau da,

batzuetan ez da identifikatzen sexu hezkuntza bezala eta kasu hau oso konplexua izan daiteke. Izan ere, inkontzienteki zabal ditzakegun mezuak egokiak ez izatea ekar dezake. Hala nola, honen inguruan ez dela hitz egin behar, honetaz hitz egitea arriskutsua da, hau hitz egin kalean ez baita eskolan hitz egitekoa, hor ez ukitu, hori ezin da egin, hori gaizki dago ... Hortaz, jarrera hauekin, sexu heziketa bat ematen da, baina mezu desegokiekin. Hori dela eta, jarrera hauek identifikatu eta landu egin behar dira nahiz eta askotan zaila egiten zaigun honi buruz hitz egitea tabu asko ditugulako.

Hau dena ikusirik, gaur egun ematen den sexu heziketa planifikatuari buruz hitz eginez, uste dut egiten dela, baina ez dela nahikoa. Honekin batera, oso berandu esku- hartzen dela iruditzen zait. Horrez gain, begirale zein hezkuntza profesionalekin ere lantzen da gaia baina berriro ere, ez da nahikoa.

## **2) Lantzen al da hezkuntza arautuan hezkuntza sexuala? Nola? Zertarako?**

Lantzen da baina lanketa oso urria egiten da. Suposatzen da curriculumean txertatuta dagoela, baina ikastetxeen edo irakasleen esku egoten da gai hau landu edo ez. Askotan modu transbertsalean lantzen da, natura bezalako ikasgaietan baina ez dago ikasgai bat honi bideratua. Hortaz gain, 4- 6 edo 8 orduko ikastaroak ematen dira. Hau dena, eskola publikoei dagokionez. Badaude salbuespen batzuk, ikasturte osoan zehar lantzen dutenak gai hau baina hau ez da ohikoena.

Irakasleekin eta baita gurasoekin ere esku- hartzen dugu. Batez ere sexualitatearen inguruko zer jarrera duten ikusten dugu eta hortik abiatuta sexualitatearekiko jarrera irekiak izatea nahi izaten dugu.

## **3) Zer etapatar dago nagusiki bideratua? Haur hezkuntza etapan lantzen al da?**

Orain egiten ari dena, Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osora eta Batxilergora dago gehienbat bideratua. Hala eta guztiz egiten den bakarra arestian aipatutako ikastaro labur hauek dira.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetan ez dugu esku- hartzen. Soilik kasu isolatuetan, zerbait gertatuz gero.



**4) Nola? Zer baliabide erabiltzen dira? Non eta noiz izaten da?**

Irakasle edo eskolak eskaera egiten dutenean, aurretik prestatuak ditugun saioak burutzen ditugu, beti ere taldera egokituz. Eskolek zehazten dute saio hauen iraupena. Baina arestian esan bezala 4, 6, edo 8 orduko saioak izaten dira hauek.

**5) Zer helbururekin lantzen da? Beste etapekin alderatuz helburu berarekin lantzen da?**

Sexu hezitzaileen ikuspuntutik gure helburua, neska eta mutilen garapena da. Askatasunez, euren gorputzak ezagutzea, onartzea eta bakoitzak bere burua adieraztea nahi duen moduan. Horretarako, bakoitzak bere gorputzak nola funtzionatzen duen deskubritu behar du, desirak, plazerak eta sexualitateak. Beti ere aniztasuna zabaltzearen ikuspuntutik eta gorputzaren onarpen, ezagutza eta adierazteko gaitasuna garatzen.

Eta bakoitzean helburu ezberdinak daude, taldearen ezaugarrien araberrakoak direnak. Egia da, auto-ezagutza, adierazpena eta harremanak etapa guztietan lantzen dela baina segun eta zer etapan dauden, gai berdina ikuspuntu desberdinetatik lantzen da.

**6) Irakasleek hezkuntza sexualaren inguruko formakuntza dutela uste duzue?**

Ez. Orokorrean irakasleek ez daukate formakuntzarik honen inguruan. Nire kasuan, ikusi izan dut, Lehen Hezkuntza edo Haur Hezkuntzako irakasleek, biologiaz hitz egiten dutela, formakuntza oso biologikoak ematen dituztela eta ugalketarekin zer ikusi handia daukan sexualitate bat aurkezten diela ikasleei. Gainera, aurreiritziz jositako ikuspuntuak izaten dira, oso tradizionalak. Gero hauengana gu iristen gara, gauzei beste modu batez deitzen diegu eta eskemak apurtzen dizkiegu.

Ikuspuntu hauek saiheste aldera, uste dut ezin dela sexu hezkuntza hau edozeinen eskuetan utzi. Profesionalak izan behar gara gai hau hurrekin lantzerako orduan. Hortaz, interesatea izango litzateke, hezkuntzara bideratutako graduatan ikasgaireren bat honi bideratuta egotea.

**7) Ba al dago materialik haur hezkuntzako hurrekin hezkuntza sexuala lantzeko? Zein?**

Bai. Adibidez, Steilatik ateratzen dute zenbait material eta orain dela gutxi LAB sindikatutik atera dute. Material gutxi dago, gehiago egon beharko litzateke, baina badago zerbait.

**8) Nortzuk ari dira/zarete sexualitatea lantzen hezkuntza? Zein erakunde edo taldetan zabilzate?**

Asko gabilza honetan lanean. Badago jendea modu autonomoan lanean baina elkarte eta enpresa pilo bat ere badaude. Adibidez, Emaize, Urtxintxa, Arremanitz, Desirak elkarteak, Naizen ... Elkarlan handia dago gure artean. Bakoitzak bere materiala sortzen du baina elkarlan handia dago gure artean.

**9) Nola ulertzen duzue zuek sexualitatea?**

“litate” horrek adierazten duen moduan, ezaugarri bat da. Gizakiok daukagun sexuak izateko ezaugarria. Horretarako, ulertu beharko genuke zer den sexuak izatea. Azken finean zer garen adierazten du. Hau da, sexuaren bidez egiten gara, modu batean edo bestean eta joaten gara bereizten modu maskulino eta femeninoetan eta hauen artean dagoen errealitateetan. Hortaz sexualitatea, sexua izateko ezaugarria da, harremantzeko, plazerrarekin, gorputzarekin eta desirarekin zerikusia duen horretan.

**10) Nola bizi duzue sozialki eta mediatikoki azkenaldian dagoen kontrako giroa?**

Kezkarekin bizi dut baina aldi berean pozik nago Euskal Herrian bizi garelako. Kezkarekin zergatik? Ba, hasieran gaudela uste dudalako, hemendik aurrera holako jarrera gehiago ikusiko ditugulakoan nago. Adierazpen askatasunean babestuta hitz egien dutela diote eta hau oso arriskutsua iruditzen zait. Izan ere, askatasun hitza erabiltzen ari dira eta badago jende bat, pertsona hauek esaten duten dena sinetsiko dutenak.

Baina Euskal Herrian hau gerta ez dadin asko borrokatu dugula uste dut eta nahiko blindatuak gaudela iruditzen zait.

**11) Zergatik uste duzue dela garrantzitsua haurrek hezkuntza sexuala jasotzea?**

Ezinbestekoa delako. Azken batean, bakoitzak bere burua ezagutzea delako eta bakoitzak bere burua ezagutzen eta bakoitza bakarra eta errepika ezina dela ulertzen badugu, gure gizartea askoz hobea izango delako. Adibidez, norberak ulertzen badu, modu batekoa dela eta ondokoa desberdina, orduan askoz errazagoa izango da pertsonen arteko desberdintasuna ulertzea. Modu honetan, aurreiritziz beteta dugun gizarte hau alde batera utzi eta denok onartzen garen gizarte bat sortzea lortuko dugu.

**12) Zein da zuen eskaintza edo zuen programa? (Ze etapatan egiten duzue lan? Zer eskaintzen duzue? Hurrekin bakarrik edo irakasleekin ere lantzen duzue hezkuntza sexuala? Nola? Zer material erabiltzen duzue?)**

Batez ere, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan hasi eta batxilergorainoko saioak eskaintzen ditugu. Horrez gain, irakasleentzako formakuntza ere ematen dugu. Horretarako, 6 edo 8 orduko saioak eskaintzen ditugu. Bertan, euren beharrak identifikatu eta hauen inguruan hitz egiten dugu.

**13) (Nire egoera azaldu eta gero) Zer gomendatuko zenidakete?**

Lehenengo eta behin, beraien behar eta orain arte jasotako formakuntza entzutea gomendatzen dizut. Lehenengo bi orduetan behintzat. Gero, horren arabera, denon artean eztabaidatu eta norberaren esperientzia propiotik hitz egitea proposatuko nizuke. Sexualitatea, mitoekin apurtzea eta haur hezkuntzan eman daitekeen sexu hezkuntza definitzen saiatuko nintzateke. Hau da, denon artean definitzea zeintzuk izan daitezkeen hezkuntza sexuala lantzeko ardatz nagusiak Haur Hezkuntza etapan.

**SIMONE BERISTAIN (irakaslea)**

**1) Zenbat urte daramatzazuz hezkuntzan lanean? Non egin eta egiten duzu lan?**

Berrogei urte baino gehiago daramatzat hezkuntzan lanean. Gau eskolan hasi nintzen. Gero, magisteritza eskolako seminarioan irakasle aritu nintzen. Handik aurrera Mogel, Alkiza eta Sehaska ikastoletan, ikastolen elkarterako materialgintzan, HikHasi proiektua sortzen eta Ezkioneko eskola sortzen aritu

naiz. Gaur egun aldiz, berriro Mogel ikastolako irakaslea naiz, Sansaburu ikastetxekoa.

## **2) Lantzen al da hezkuntza sexuala gaur egun?**

Uste dut ezetz, oso gutxi. Haur Hezkuntzan ezer ez. Pentsatzen dut irakasleok ez gaudela prestatuta horretarako, baina geure bizitzan hortaz hitz egiteko ere ez. Eta Lehen Hezkuntzan dudan esperientziaren arabera, bakoitzak nahi duena egiten du.

## **3) Lantzen al da hezkuntza arautuan hezkuntza sexuala? Zer helbururekin?**

Haur Hezkuntzan ez. Nik ezagutzen dudanaren arabera, hezkuntza arautuan irakasleek lantzen badute hezkuntza sexuala, ugalketa bezala ulertuz lantzen dutela esango nuke.

Gurean ere, gai honen inguruan formatzen hasiak gara baina batzuen argumentu edo diskurtsoa entzun eta gero, agian ezer ez badute azaltzen edo ezer ez bada egiten hobeto izango litzatekeela uste dut. Izan ere, batzuen diskurtsoak entzutean asko "flipatu" dut eta hau izaeraren kontua dela iruditzen zait, ez adinaren kontua.

Orokorrean bizi osoan zehar, oso gutxi landu dugun gai bat da eta horren isla dira ikasgelak. Hori dela eta, nahiago dut ezer ez egitea, txarto egitea baino. Batez ere, hurrei helarazten dizkiegun mezuak oso potenteak direlako.

Hau dena azalduta, gaur egun burutzen den hezkuntza sexualaren helburuari dagokionez, ugalketara bideratua dagoela esango nuke.

## **4) Lantzen al da Haur Hezkuntzako etapan? Nola? Ze helbururekin lantzen da?**

Haur Hezkuntzako etapan ipuinen batekin lantzen dela iruditzen zait. Gero, irakasle batzuk lantzen dugu, bost urterekin masturbatzen hasten direnean esaterako. Gurasoekin ere hitz egiten dut, horrelako jarrerak ikustean ez diskriminatzeke, ze normalean emakumeona da gehien diskriminatzen dena. Gehienbat gauzak normalitatearen barruan sar daitezten lantzen ditut. Izan ere, etxeetan ere ez da sexualitatea normalizat hartzen, ezkutatu egiten da eta ez

gaude hortaz berba egitera ohituak. Hori dela eta, haurren etxeetara galderak luzatzen ditut, gaia pixkatxo bat txikitatik natural hartzen has daitezen. Hortaz gain, adibidez ginekologora joaten naizenean, haurrei dena kontatzen diet eta hauek barrez hartzen dute eta etxera joatean apur bat "flipatu" egiten dute. Baina dentistara joaten naizenean ere dena azaltzen dieten moduan kontatzen diet ginekologoarena baina dentistarena kontatzean ez da inor harritzen.

Helburu nagusia hori da, naturaltasuna ematea orain arte ezkutuan eduki dugun gai bati.

**5) Haur Hezkuntzako gradua burutu zenuenean hezkuntza sexualaren inguruko formakuntza jaso zenuen?**

Haur Hezkuntzako gradua egin nuenean hezkuntza sexualari buruz ezertxo ere ez, ez nuen jaso. Eta hori, orain dela ez asko burutu dudala.

**6) Haur hezkuntzako etapan lanean zaudenetik hezkuntza sexualaren inguruko formakuntzarik jaso duzu?**

Orain dela urte batzuk, eskolako klaustro denak bi saioko formakuntza bat jaso genuen baina hau ez zen nahikoa izan eta gogoz nago gaia lantzeko, batez ere heziketa pertsonalerako.

**7) Lanean zabiltzan urte guzti hauetan sexualitatearekin loturako esku-hartzerik egin behar izan duzu? Zer?**

Bai. Nahiz eta orain normala izan, orain dela denbora bat txiki txikitatik mutilak gustatzen zitzaizkion ikasle bat nuen ikasgelan, bera zakilduna zen eta gurasoek horregatik ia-ia psikologoarengana bidali zuten. Ezkerrak moztu egin zitzairen eta gauzak ondo bideratu ziren.

Gogoratzen dudan beste esku-hartze bat, ikasle intersexual bat izan nuela da. Adituengana bideratu genuen familia hau baina garai haietan ezjakintasunetik esku-hartu genuen.

**8) Ezagutzen duzu haur hezkuntzan hezkuntza sexuala lantzeko materialik?**

Haur Hezkuntzan hezkuntza sexuala lantzeko material bakarra zuk oparitutako liburuak dira.

**9) Nola ulertzen duzu zuk sexualitatea?**

Jatea, edatea eta beste hainbat beharretako bat bezala. Askotan sexualitatea kontzeptuaren erabilera okerra egiten dugula iruditzen zait. Nik sexualitateaz ulertzen dudana ez delako sexualitatea benetan dena. Izan ere, sarketa bezalako kontzeptuak dira burura etortzen zaizkidanak. Hori da nire inguruan bizi, ikusi eta sentitu dudana orain arte. Baina, hori baino gehiago dela ere pentsatzen du, maitasuna, goxotasuna, plazera eta bizipena elkartrukatzeko, bizitzeko eta gozatzeko gauza, tresna, bizipen edo sentsazioa dela uste dut.

**10) Garrantzitsua da hurrek hezkuntza sexuala jasotzea? Zergatik?**

Niretzat oso garrantzitsua da hurrek hezkuntza sexuala jasotzea. Izan ere, adin hauetan hurrak euren burua definitzen hasten dira eta jarrera edo joera batzuk inposatu egiten dizkiegu. Hau ondo kudeatu eta lantzeko, beharrezkoa da hurrei azalpen argi, zintzo eta egiazkoak ematea. Batez ere, etorkizun lasaiago bat izan dezaten.

**11) Nola bizi duzu gaur egun sozialki eta mediatikoki azken aldian dagoen kontrako giroa?**

Normala iruditzen zait. Orain arte hezkuntza sexualari buruz ez zen hitz egiten eta kontrako giro hau da hortaz hitz egiten hasi garenaren seinale. Lehen hezkuntza sexualari buruz ez zenez hitz egiten horren kontrako jarrerarik ere ez zen entzuten baina pentsaera hau betidanik egon da. Eskuindarren gazteluak kolokan jartzen dituzte hezkuntza sexuala bezalako gaiak. Izan ere, euren sistema eta euren ohiturak zalantzan jartzeak euren mundu apurtzea dakar, orduan, honetan ere kontserbadore hutsak izan behar dira bestela familia eredu patriarkal hori ezin da sostengatu. Hala ere, denbora gutxian gaztelu hauek denak bertan behera eroriko zaizkiela pentsatzen dut.